

ASTELEHENKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-07-16
ASTELEHENA
373. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



ARANTZAZU EZKIBEL

"Erregulazioa lortzeko hiru urteko egonaldia eta lan eskaintza izatea eskatzen da"

Jose Zarauz | Biltzeneko legegaria | 7

Debagoieneko I. Txakolin Eguna, errepikatze modukoa | 13



Gurpil-aulkien eta ikusleen arteko interakzioa bilatu eta lortu du Iñaki Matak Arrasaten | 24



Natra Oñati EBA mailara itzuliko da irailean | 21



Hiru, bi, bat... su!

Zapatua izan da Antzuolako jaietako egun jendetsuena eta Mairuaren Alardea ekitaldi arrakastatsuenaren | 12

Jendeak ez zuen alardea galdu nahi izan, zenbait momentutan belarriak tapatu behar izan arren.

JULIO CALLEJA

Lau egunean 1.000 herritar joan dira Ibarra kiroldegira

Bazkideek doan probatu ahalko dute abuztuan | 2

Debagoieneko Industrialdea S.A. desagertu egingo da

Deba Behekoa Industrialdea S.A.k xurgatuko du | 4

Wi-fi publikoekin eta fakturekin kontuz ibiltzea aholkatzen da, opor sasoiaren bereziki | 28

%25_{eko} deskontua



ARGIA euskal aldizkari orokorra

► Zoaz 19. orrialdera.



Rokodromo-boulderrak eskalatzeko 260 m2 ditu. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



Markole kantxa, ihar egurrezko zoruarekin.

Lau egunean, 1.000 herritar joan dira Ibarra kiroldegira

- ▶ Aretxabaletako kiroldegia barrutik erakusten dabilta
- ▶ Igerilekuak, rokodromoa, kantxa... dena da gustukoa
- ▶ Bazkideek abuztuan doan probatu ahalko dute

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA
Ikusmin handia zuten aretxabaletarrek Ibarra kiroldegi berriaren inguruan, eta oraingo asteen hura asebetetzeko aukera ondo aprobetxatu dute. Izan ere, Are-

txabaletako Udalak antolatu dituen ate irekien saioek sekulako arrakasta izan dute: astelehenetik eguenera bitartean, 967 lagun joan dira kiroldegia barrutik miatzera eta kirol arduradunen

azalpenak entzutera. Oraindik ere badago bisitatzeko aukera: gaur, astelehena, bi bisita gidatu izango dira; eguaztenean eta eguenera ere bai; eta, oro har, hilaren 26ra arte, hainbat bisita.

DATUAK

3

IGERILEKU

Ur-eremuak hiru igerileku ditu: jolas egiteko, igeri egiteko eta ikastaroetarako.

0

EURO

Bi gurasoak abonatuta dituen umeak doan ditu bazkideza eta erabilera.

17

GIMNASIA-APARAILU

Hiru gimnasioetako baten bost zinta, bost eliptika, lau bizikleta, bi arraun eta eskailera bat ipiniko dute.

Urkulu ur-eremuan (instalazio guztiek Aretxabaletako leku-izen esanguratsuak dituzte), hiru igerileku eta spa gunearekin, bisitariak denbora luzean geratu dira. Hantxe mirestu dituzte jolas egiteko, ikastaroak emateko eta igerian egiteko ontziak, denetara 603 m²-ko azalera duen ur-eremuan; baita 192 m²-ko spa gunea, sauna lehor eta bustiarekin, tratamendu-dutxekin, izotz-makinarekin eta batez ere umeek oso gustuko izan dituzten etzaulki termikoekin.

Eguenera arte ez zen Otxal Zelai berdeguneaz gozatzeko benetako aukerarik izan, euria dela-eta. Baina begiz jo zuen batek baino gehiagok, eguzkia hartzeko leku ezin hobea delako: 957 m²-ko belar artifizialeko berdegunea, ur-eremuaren ondoan.

Hiruatz rokodromo-boulderra da beste izar handia. Kirol arduradunek hainbat datu ematen dituzte bisita gidatuetan: 350 m²-ko azalera du, eta eskalatzeko panelaren azalera 260 m²-koa da. 3.000 presa ditu. Top 30 enpresak instalatu du dena, baina Deba-goieneko eskalatzaileek egin dute diseinua. Eskalatzaile hasiberriendako eta maila handia dutenendako, denondako da egokia rokodromo-boulderra.

Berezitasunak ere baditu, Ibarako zuzendariak, Iker Etxeberriak, esaten duen moduan: "Ez da oso altua; beste leku batzuetan, rokodromoak oso altuak dira. Baina oraingo joera da baxuagoak egitea. Honakoa, batez ere, boulderrarako dago pentsatuta".

Ur-eremuan denbora luzea

"Oso polita", "oso handia, batez ere aurrekoarekin alderatuta", "luxuzkoa"... horiek dira aretxabaletarrok bisitetan zehar esaten zituztenak. Leku eta instalazio batzuek arreta berezia eman dute:

Lan luzea izan da

Herritarrek ikusmina izan dute, besteak beste, kiroldegia eraikitzeak luze jo duelako: 2009ko irailean hasi ziren obrak, kirol-etxe zaharra bota eta gero. Obrek 11,4 milioiko aurrekontua zuten eta 20 hilabetez bukatzekoak ziren; azkenean, 14.425.370 euro kostatu da kiroldegia eta hiru bat urte behar izan ditu bukatuta egoteko. Galdiano enpresak egin ditu lanak.



2009ko urtarrilean, kirol-etxe zaharra botatzen. | INIGO INURRATEGI



2011ko irailean, azkenean izango zuen itxura hartzen. | INIGO INURRATEGI



Igerilekua ikusi ez ezik, bertan busti ere gura izan zuten askok.



Umea, etzaulki termikoan pozik.

Abuztuaren 20an, tresnak

Kiroldegia hiru gimnasio ditu. Behe-solairukoak Arlutz du izena: 288 m²-ko gimnasio-aretoa, egurrezko zoruarekin. Hori ere, joera berrienei kasu eginez erai-ki dute, izan ere, bi leku bereizteko horma mugikorra izango du: leku bat muskulazioa lantzeko izango da, eta bestea, gimnasia egiteko. Horrela, erabiltzaile guztiak eroso sentitzea ziurtatuko da.

Gimnasioa ekipatzera abuztuaren 20an etortzera konprometitu dira instalatzaileak. AEBetako Life Fitness markako gimnasia-aparailuak aukeratu dituzte. Honakoak izango dira nabarmenenak: bost zinta, bost eliptika, lau bizikleta, bi arraun eta eskailera bat.

Gimnasio handiena, 291 m²-koa, 1. solairuan dago eta Andar- to fitness-gela da. Punta-puntako makinak ipiniko dituzte, indarra hartu gura duenarendako eta osasun kardio-baskularra hobetu gura duenarendako.

Lurrazpiko solairuan, Arbe gimnasioa dago, 192 m²-koa, gomazko zoruarekin. Hor, spinning egiteko 20 bizikleta ipiniko dituzte.

Beste instalazio edo eremu erakargarriena Markole kantxa da, behe-solairuan. 1.235 m² ditu eta ihar (arce) egurrezko zoru- du. Modu askotara erabil daiteke kantxa hori: besteak beste, areto-futbolarako, eskubaloirako, saskibaloirako... Bitan banatu daiteke gortina batekin, aldi berean bi taldek erabil dezaten. Harmai-

MAIALEN MENDIETA



"Asko gustatu zait kiroldegia; oso polita da, eta oso handia ere bai. Piszina eta eguzkia hartzeko lekua gustatu zaizkit gehien. Askotan etorriko naiz lagunekin".

MARKEL PEREZ



"Gustatu zait kiroldegia; batez ere, kantxa. Igerilekua ere asko gustatu zait. Aitak esan dit beharbada bazkide egingo garela eta etorriko garela".



PILI GOROSTIAGA ETA ANGELINES LOPEZ

"Asko gustatu zaigu; igerileku aldea, saunarekin-eta, primeran dago; rokodromoa eta kantxa ere bai; eta gimnasioak... dena dago oso ondo. Guk uste ditugunak badira tarifak, nahiko onak iruditzen zaizkigu, egokiak".

la mugikorrak ditu, 300. Kantxan, kirolaz gain, beste jarduera batzuk ere egin ahal izango dira, kultura jarduerak, adibidez.

Horiek dira instalazio nagusiak, baina beste batzuk ere badaude: kirol medikuntza eremua eta kirol elkarteendako eremua, lurrazpiko solairuan; eta Kalesolo gela, kirol lasaietarako, formazio ikastaroetarako, hitzaldietarako... erabil daitekeena.


BEZ handiagoa, barne

Bazkideak egiteko kanpaina martxan da. Oraingo astean, aretxabalarrek etxean jasoko dute kiroldegia gainera informazio guztia, esku-orrian, eta tarifen berri ere bai. Batzuk esatearren, hileko abonuan, Aretxabalean errolatuta dauden 14 eta 17 urte artekoek 22 euro artean ordaindu beharko dute, gurasoek edo guraso batek abonua duten edo batek ere ez duen arabera; 3 eta 13 urte artekoek, 14,30 arte, irizpide bera- ren arabera; 18 urtetik gorakoek, 26,40; langabeek eta 65 urtetik gorakoek, 17,60, ordutegi murriztuaren barruan, hau da, 16:00ak arte; elbarriek, 6,60. Tarifa horietan aplikatu da dagoeneko Espainiako Gobernuak iragarri duen BEZaren garestitzea.

Kiroldegia irailaren 3an irekiko dute. Baina hemendik eta abuztuaren 27ra arte abonatzen direnek aurrez probatu ahal izango dute kiroldegia, instalazio eta ekipamendu guztiarekin, izan ere, horren aurreko astean ordutegi murriztuarekin irekiko dute Ibarra.



Saunak –lehorra eta bustia, biak daude– ere arreta eman zuten.



Jendea gora eta behera ibili zen, kiroldegia ikusteko gogoarekin.

Amagara

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Depilazioa edertasun tratamendua ere badelako...

- Depilazioa argizariarekin:
 - Hankak.
 - Besapeak.
 - Bizkarra.
 - Besoak.
 - Goiko ezpaina.
- Depilazio elektrikoa.
- Laser depilazioa.

Eta ondo sentitzeko...

- Gorputz-masajea
- Aurpegi-masajea
- Aurpegi-garbiketa
- Pedikura-manikura
- Mikropigmentazioa:
 - Bekainak.
 - Begiak
 - Ezpainak
- Solariuma...

Debagoieneko Industrialdea S.A. desagertu egingo da irailean


- ▶ Deba Behekoa Industrialdea S.A.k xurgatuko du bere ondarea
- ▶ Praktikan ez du eraginik izango; bai, ordea, bazkidetzari dagokionean

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Industriak bat-egiteak burutu ditu Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat industrialdetan eta tartean dago Debagoienekoa; Deba Behekoak xurgatuko du.

Deba Beheko Industrialdea S.A. eta Debagoieneko Industrialdea S.A. sozietate publikoen administrazio kontseiluek martxo bukaeran egindako batzarretan erabaki zuten bat egiteko prozesua hastea; Deba Behekoak Debagoienekoa xurgatuz gauzatu da bat-egitea. Ondorioz, Deba Beheko Industrialdea S.A. sozietateak bere egingo du xurgatutako sozietatearen ondarea, aktiboa zein pasiboa, eta Debagoieneko Industrialdea S.A. desagertu egingo da.

Gaur egun Debagoieneko Industrialdean ibarreko zortzi industrigune daude: hiru, Oñatin (Berezaio, Oxinurdin eta Zubillaga); bi, Aretxabaletan (Bainetxe eta Basabe); Markulete, Arrasaten; Labegaraieta, Bergaran; eta Torrebaso, Eskoriatzan.



Markuleteko industrigunea Arrasaten, Aramaiorako bidean. | JULIO CALLEJA

Deba Bailarako Industrialdea Ekainaren 28an egindako batzar nagusian onartu zuten bat-egitea eta irailaren 1ean egingo dituzte industrialde berriaren erabateko eskriturak; Deba Bailarako Industrialdea S.A. izango da elkarte

berriaren izena eta Fermin Orue Etxebarriak jarraituko du gerente izaten (bera da elkarte berria osatuko duten bi industrialdeetako gerentea gaur egun ere).

Egungo Aretxabaletako eta Elgoibarko bulegoak mantendu

egingo dituzte, baita langileak ere, eta praktikan ez du eraginik izango. Eragina izango du, hori bai, elkarte berriaren bazkideek izango duten parte-hartzean, lehen baino udal gehiagok esku hartuko dutelako: Spirilurrek izango

DATUA

8

INDUSTRIGUNE

Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako bana, Aretxabaletako bi eta Oñatik hiru daude Debagoieneko Industrialdea S.A.n.

du zatirik handiena, %51; Gipuzkoako Foru Aldundiak, %24,42; Aretxabaletako Udalak, %4,66; Elgoibarkoak, %3,17; Mutrikuoak, %2,99; Eibarkoak, %2,63; Oñatik, %2,59; Arrasatekoak, %2,29; Bergarakoak, %2,15; Eskoriatzakoak, %2,07; Mendarokoak, %2; eta Debagoieneko Mankomunitateak, %0,02.

2009an 22, 2012an 12

2009an hasi zen industrialdeen fusio prozesua, 22 industrialde zeudenean; eta 12 izatera pasako dira (bat Araban, lau Bizkaian eta zazpi Gipuzkoan). Azken bat-egitekin amaitutzat emango da fusio prozesua. Gastua arrazionalizatu, kudeaketa eraginkorragoa lortu eta lursail eskaintza optimizatu nahi dira neurrian bitartez. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren arabera, "lokalismoak gainditzeak lurraldearen oreka eta kohesioa indartzea" dakar.

Debagoieneko Mankomunitateak egunotan egin asmo du balorazioa.

Udazken hasieran batuko da berriz euskal hedabideen eta Diputazioaren mahaia

Eguenean eratu zuten mahaia euskal hedabideen sektorearen gaineko azterketa lana egiteko; epe luzerako elkarlanaren hasiera dela diote alde biek

U.A./G.A. | ARRASATE

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideetako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak egunean eratu zuten euskal hedabideen azterketaz arduratuko den mahaia; hedabideek maiatzean aurkeztu zuten sektoreak bere esparruaz egindako diagnostikoa eta orain bien arteko azterketa lanari ekin diote. Hedabideen aldetik, Iban Arregi (*Berria Taldea*), Inazio Arregi (*Tokikom*), Maria Gil (*Elhuyar*) eta Xabier Letona (*Argia*) izan ziren; Diputazioaren aldetik, Zigor Etxeburua Euskara zuzendaria eta Haritz Salaberria diputatu nagusiaren kabinetekoa.

Mintzagai nagusiak

Diru-laguntzak eta hitzarmen politikak, euskarazko hedabideetara bideratutako publizitatea, euskal hedabideen elkarte eta hedabideen behatokia izan ziren mintzagai nagusiak. Hedabideetako ordezkariak adierazi zuten baliabide gehiago behar dituztela euren lana eta proiektuak aurrera ateratzeko, eta nahiko luketela Diputazioaren aldetik

diru-laguntza politiketatik hitzarmen politiketara iragateko egon daitezkeen aukerak aztertzea. Agintarien esanetan, Diputazioak badu sostengu ekonomikoa hantzeko borondatea, baina aitortzen dute aurrekontuaren aurreikuspenak estuak direla eta borondate hori gauza litekeen aurrerago ikusi behar dela.

Euskal hedabideen elkarteak

Aurrera begira, udazken hasieran, berriz biltzekotan geratu

dira, joan den astean mahaian hitz egindakoen jarraipena egiteko. Ordurako, gainera, herri ekimeneko euskal hedabideen elkarte osatuta egongo dela adierazi zuten hedabideetako ordezkariak eta horrek mintzalkide lanak erraztuko dituela azpimarratu zuten. Bilera amaituta, emandako urratsaren garrantzia azpimarratu zuten bi aldeek, argi adieraziz haur epe luzera egin beharreko elkarlanaren hasiera dela.

Sektorearen aldeko apustua

Euskal hedabideak 450.000 lagunengana iristen dira, 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dute eta 27 milioi euro inguruko jardura ekonomikoa eragiten dute. Izaera estrategikoa aitortzen zaie, baina murrizketak iristen ari zaizkie etengabe; tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak izatera ere iritsi dira.

Diru iturri berriak bilatuz, enpresa egiturak sendotuz, baliabideak optimizatuz eta elkarlanerako formula berriak garatuz, inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari dira egungo garai latzetara egokitze eta horretan jarraituko dute, baina ezinbestekoa da erakundeek sektorearen aldeko apustu sendoa egitea.



GOIATZ ARANA

Zaballara, presoan alde egitera

Gaixotasun larriak dituzten 14 euskal preso politikoaren alde, kandela gaur egin zuten barikutik zapatura Zaballako espetxe aurrean. Dozenaka lagunek egin zuten bat ekimenarekin —argazkien ageri den Arrasateko seikoteak tartean— eta gehiago batu zitzaizkien zapatu goizean egindako elkarretaratzean; bergararrak, horien artean.

AHT: elkarretaratzea gaur, 11:30ean, azken istripua salatzen

Arrasateko Herriko plazan izango da, *Lan istripu gehiagorik ez* lelopean. LAB, ELA, HIRU, EHNE eta ESTEE-EILAS sindikatuek deitu dute.

Azpiegitura horretako Gipuzkoako azken zatiko lanak, Hernalde-Zizurkil, hilaren 23an hasiko dituzte; martxan daude gainerakoak; eta bi, bukatuta.

Festetako programak, kartel eta pegatinak jasotzeko deialdia

Lazkaoko Beneditarren Fundazioetik gogora erazi dute Juan Jose Agirre monje beneditarrak festetako programak eta mota guztietako kartel eta pegatinak jasotzen dituela, eta uneotan baita hurrengo hauteskundetara begira aterako duten propaganda ere. Helbidea da: Elosegi 27, 20.210 Lazkao.

Elkarte gastronomikoak lapurren helburu izan dira azken asteotan, Debagoiena osoan

Azken asteotan eman dira lapurretak; Gorlan, adibidez, ia sukalde osoa ostu zuten, labe eta guzti

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Elkarte gastronomikoak lapurren jomuga izan dira azken asteotan. Bailara osoa izan da lapurreton lekuko: Arrasateko Meatz Erreka eta Egipe, Bergarako Gorla, Artatze eta Pagomendi, Oñatiko Haitzalde eta Oinarri, Aretxabaletako Urbaltz eta Elgetako Intxorta elkarteetan sartu dira edo sartzen saiatu dira.

Bergarako Gorla elkarteetan eman zen lapurreta esanguratsuenaren Jon Ander Ormaetxea bazkideak azaldu digunez ekainaren 16an eta 23an sartu ziren. Lehen aldian leihotik sartu ziren; ia sukalde osoa eraman zuten, labe eta guzti, eta baita kafe-makina eta izotz-makina ere. Horren berri eman zuten salaketan. Astebete beranduago, hilaren 23an, ondoko leihotik sartu ziren, soto-ara; alkoholdun 250 botila txiki eraman zituzten -kontsumo bakarrerakoak-, besteak beste. "Salaketa jarri ostean konturatu ginen pitxer eta bestelako ontzi batzuk ere falta zirela", adierazi du Ormaetxeak. Bergaran Artatze eta Pagomendi elkarteetan ere sartu ziren uztailearen 8an. Herri-

DATUA

8

ELKARTETAN GUTXIENEZ

Lapurrak gutxienez zortzi elkartetan sartu edo sartzen saiatu dira. Gehienetan dirua eta alkoholdun botilak ostu dituzte.

zaingo Sailaren arabera, dirua eta alkoholdun botilak eraman zituzten nagusiki, ateko sarraila behartu ostean.

Atetik zein leihotik

Bestalde, Arrasate eta Oñatin joan den astean eman ziren lapurretak. Hilaren 9ko gauean Arrasateko Egipe elkartera atetik zein leihotik sartzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Ertzaintzak ez du inor atxilotu eta ikertzen dihardute. Oñatin ere martitzen gauean eman ziren lapurretak Haitzalde elkarteetan. Sarraila apurto ostean sartu baina ez zuten



Uztailearen 9ko gauean Arrasateko Egipe elkarteetan sartzen saiatu ziren lapurrak, baina ez zuten lortu. | JOKIN BEREZIARTUA

balio handiko gauzarik eraman; kutxa gogorra behartu zuten baina hutsik zegoen. Egun berean saiatu ziren Oinarri sartzen baina ez zuten lortu. Udaltzaingoaren arabera, sarraila apurto arren ez ziren barrura sartu.

Aretxabaletako Urbaltzen ere sartu ziren, duela bi aste. Elkarte atetik sartu ziren eta tabernara sartzea ere lortu zuten; dirua eraman zuten, nagusiki.

Elgetako Intxorta elkarteetan uztailearen 1eko gauean sartu ziren, jaiak amaitu berri. Ferixa Nagusian salda eta pintxoak banatzeagatik herritarrek borondatez utzitako dirua eraman zuten, eta baita bazkideendako zenbait opari ere. Mikel Irazabal presidentek esan digunez, leihotik sartu ziren.



Oñatiko Haitzalden sarraila apurto ostean sartu ziren. | OÑATIKO UDALTZAINGOA

Frankismoaren krimenen kontrako mozioak

Arrasaten bihar, asteartea, landuko dute; eta Elgetan, berriz, bihar zortzi, uztailearen 24an

I.G./U.M. | ARRASATE

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilarako Euskal Plataforma "frankistek fusilatu eta edo desagerrarazitako herriko senideek eta elkarteek aurkeztu-

tako kereila" babesteko eta "diktadura frankistak egindako genozidioagatik eta edo gizateriaren aurka egindako krimenengatik Argentinako Errepublikako Lehen

Epaitegi Kriminal eta Zentzagarri Federalean aurkeztutako kereila estatu mailan aintzat hartzea" eskatzeko mozioak aurkeztuko ditu Arrasaten eta Elgetan.

Legezko gobernua zanpatuta

Francoren altxamendua "legez eraturako Errepublikaren eta Espainiako, Euskal Herriko eta Kataluniako gobernuen" aurkakoa izan zela salatzen dute, baita ondorengo diktadurazko erregimena ere "odolez eta suz zanpatu baitzuten Euskal Herriko, Kataluniako eta Galiziako askatasunaren,

justizia sozialaren eta eskubide nazionalen aldeko disidentzia eta borroka zantzu guztiak".

Justizia egiteko exijitzen du

Horrekin batera, dio oligarkia eta Eliza Katolikoaren hierarkia erregimen faxistaren alde jarri zirela, Amnistia Legeak "frankisten zigorgabetasuna eskaini" zuela eta ez zituela "garbitu Diktaduraren aparatatu juridiko eta hertsatzaileak". Era berean, "egindako gehiegikeria guztien arduradunekin justizia egiteko exijitzen du eta besteak beste, azpi-

marratzen du "nazioarteko araudian gizateriaren aurkako krimen moduan kalifikatutako delituen egileek izan duten eta duten zigorgabetasuna eta genozidioaren biktimek bizi duten babesgabezia egoera".

Plataforma osatzen dute: Alfaylla, CNT Euskal Herria, Durango 1936, Euskal Memoria, Eusko Lurra, Egiari Zor, Garraxika Taldea, Gernika Batzordea, Goldatu, Intxorta 1937, Lau Haitzeta Gogoan, Martxoak 3, Oroituz eta Sare Antifaxista erakunde, elkarte eta fundazioek.

Etxe-husteen kontrako sinadurak batuko dituzte Aretxabaleta eta Oñatin

Eguaztenean, uztailearen 18an Aretxabaletako erdigunean eta uztailearen 19an Oñatiko herriko plazan egin dute hitzordua etxe-husteen kontrako sinadurak batzeko. Debagoieneko Ezker Anitza dabil etxe-husteen kontrako ekimen hau bideratzen. Kaltetuendako laguntza ere eskaintzen dute: 653 722 931 edo stopdesahucios@plazan.net.

- Era guztietako ibilgailuak alokagai.
- Ibilgailua etxeko nahiz lantokiko atarira eramaten dugu.
- Asteburuetan eskaintza bereziak autoetan eta furgonetetan.

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua

943 71 66 52 / 619 44 71 75
Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI
info.goienarent@i-rent.es • www.irent-central.es/onati

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
XII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren Industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Aruak: www.pamiela.com

2012

Enpresa txiki eta ertainei laguntzeko 2.276 milioiko poltsa sortu dute

Industria sailburuak, Bernabe Undak, enpresaburuei aurkeztu dizkie ETEak finantzatzeko ezohiko tresnak; tartean, txoke-abalak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Industria Sailak 2.276 milioi euro ipiniko ditu Euskadiko enpresa txiki eta ertainen eskura, enpresak finantzatu daitezkeen. Eusko Jaurlaritzak prestatu duen ezohiko programa batek hainbat finantzaketa lerro ezartzen ditu. Helburua da enpresa txiki eta ertainak (ETE) finantza aldetik babestea.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 180.000 enpresa -ETEEK, autonomoek eta mikroETEEK- baino gehiagok eskura ditzakete finantzaketa-tresna horiek.

11 finantza-erakunderekin

Industria sailburua, Bernabe Unda, Adegiko kideekin elkartu zen egunean finantzazio-tresna guztiak azaltzeko. Bi tresna azpimarratu ditu Industria Sailak, "berriak" eta "enpresa txiki eta ertainengan eragin handiena" izango dutelako. Horieta bat da Eusko Jaurlaritzak 11 finantza-erakunderekin egin duen hitzarmena, ETEendako abalak ahalbidetzeko. Jaurlaritzak 400 milioi euro ipini du horietarako, arrisku konpartituan -%60 Eusko Jaurlaritzak eta beste %40a finantza-erakundeek-, eta, diru horri esker, 666 milioi mailegatuko dizkiete enpresei.

Beste tresna berritzailea eta inpaktu handikoa txokezko abal publikoen dekretua da. Martitzenean onartu zuten. Dekretu horren bidez, industrian eta enpleguan trakzio-efektua duten Euskadiko enpresek abalak eskatu ahalko dituzte. Gehienez ere, 200 milioi emango dira abaletan, eta 666 milioi euroko inbertsio potentziala eragingo dute.



Bernabe Unda, Industria sailburua, Bizkaiko enpresaburuei finantzaketa-tresnak azaltzen. | EUSKO JAURLARITZA

DATUA	
666 MILIOI EURO	200 MILIOI EURO
Finantza-erakundeek kudeatzeko 400 milioi ipini ditu Industriak. Horrek 666 milioi sortuko ditu enpresei maileguak emateko.	Trakzio-efektua duten euskal enpresek txoke-abalak eskatu ahal izango dituzte. Gehienez, 200 milioi euro emango dira abaletan.

Garrantzi bereziko proiektuak

Enpresak diruz elikatzeko beste tresna batzuk daude. Hala, Elkarri eta Oinarri Elkarren Bermerako Sozietateek ere abalak emango dizkiete enpresa txiki, oso txiki eta ertainei. Hain zuzen, 550 milioi emango dira, gehienez 1.300 milioi mailegu emateko.

ahalbidetuko dutenak. Luzaro sozietatearen bitartez ere abalak emango dira: 50 milioi euro, gutxira 100 milioi kredituak ahalbidetuko dituztenak.

Ekarpen inbertsio-sozietateak garrantzi bereziko enpresa-proiektuetarako partaidetza-maileguen edo kapital-sarreraren bitartez

eragiketarako finantzatzeko, eta gaur egun 270 milioi euro inbertitzeko gai da.

Azkenik, Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Sozietateak enpresa-proiektuetarako eragiketarako finantzatzeko partaidetza-maileguen edo kapital-sarreraren bitartez, eta 2012an, 40 milioi euroko aurrekontua du.

Aurrekontua, "bukatuta"

Sailburuak esan du Jaurlaritzak bere aurrekontu-aukerak erabat bukatu dituela eta enpresei finantzaketa emateko bermeak eta abalak emateko gaitasunak muturreraino erabili dituela.

Eusko Jaurlaritzaren Ezohiko Finantzaketa Programak 2.000 milioi euro mobilizatuko du, eta Ekarpene sozietatearen eta Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Sozietatearen bitartez, beste 210 milioi euro.



Aitor Axpe. | LEIRE KORTABARRIA

Aitor Axpe

Eraikuntza zikloko irakaslea

"Eraikuntzan, arbasoek egiten zutena gogoratzen gabilta orain"

L.K. | ARRASATE

Arizmendi Ikastolak doan emango du Lanbide Heziketako Eraikuntza zikloa. Uztail bukaeran eta, gero, irailean izango da matrikulatzeko aukera.

Eraikuntza krisi larriaren eraginean, konfiantza duzue eraikuntza ikasketetan. Zergatik?

Eraikuntza betidanik izan da eta beti egongo da. Azken urteetan, etxebizitzaren boom-a izan da, baina ez zen jasangarria. Orain, trantsizioan dago eraikuntza: gauza oker batzuetatik jasangarritasunera, bioeraikuntzara eta energia berriztagarrietara eroan behar dugu; hau da, arbasoek egiten zutena gogoratzea, gaur egungo zientzia eta teknologia erabilita.

Zela aplikatzen da energia eraginkortasuna eraikuntzan?

Europako Batasunak arau batzuk sortu ditu, etxebizitzak ahalik eta energia txikiena gastatzeko; efizientzia ahalik eta handiena izateko; eta energia ahalik eta berriztagarriena izateko. Lege berriek diote auditoria energetikoak egin behar zaizkiela etxeei, eta kategorietan sailkatzea, etxetresnekin egiten den moduan. Asmoa da informazio hori izatea etxebizitza erostera eta errentan hartzerakoan eta, hiler, energian ze gastu izango ditugun jakingo dugu.

Badaude dagoeneko horrelako etxebizitzak?

Eragingarritasunaren Kode Teknikoa 2006an irten zen, eta gaur egiten diren etxe guztiak badaukate katalogazio hori. Baina azken urteetan egin diren etxebizitzak ez dute kontuan hartu. Orain zirriborroan dago lege berria: Energiaren inguruko birgaitzearena, etxebizitza horiek informe energetikoak izateko. Gaur egun ez da beharrezkoa, 1.000 m² baino handiagoa ez bada etxebizitza. Gura dena da guztietarako izatea beharrezkoa.

Euskadiren BPG txikitu egin da, 21 hilabetean handituz joan eta gero

L.K. | ARRASATE

Zazpi hiruileko jarraian "leun" hazi eta gero, Euskadik Barne Produktu Gordin txikiagoa izan du berriz urteko lehen hiruilekoan: iazko lehen hiruilekotik hona %-0,3 hazi da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak *Koiunturaz* buletinean jakinarazi duen moduan. Aurreko datua baino puntu erdi txikiagoa da hori.

Hiruileko arteko tasan, bi hiruilebetz tasa hori txikituz joan da. Hala ere, lehen hiruilebeteko beherakada Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikusitua baino nabarmen txikiagoa izan zen, "neurri

handi batean barne eskariak espero baino hobeto erantzun zuelako.

Europako hazkunde tasa

Euskadiko ekonomia kanpora begira dago, eta hazkundearen 0,6 esportaziotik etorri zen. Dena dela, joan den hiruilekoaren erdia da hori, "EAEko esportazioen helburua diren herrialdeek erakusten duten ahultasun gero eta larriagoaren ondorioz". Izan ere, Europako herrialdeek, batez beste, zazpi hamarrenetan moteldu zuten hazkunde tasa, "ia hutsalak diren gehikuntza erritmoetan kokatu arte", esaten du azterketak.

Fagor Ederlanek 40 milioi inbertitu du automobilgintzan lehiazeko

L.K. | ARRASATE

Fagor Ederlanek Europako erreferentzia izan nahi du automobilgintzarako motor-blokeak eta kulatak egiten. Horretarako, Tafallan duen lantegian moldaketa-lerro berria egin du, 40 milioi inbertituta.

Moldaketa-lerro horren gaineko zehaztasunak eman ditu Fagor Ederlan Taldeak: HWS motakoa da, oso berritzailea, "kooperatibaren enpresa-proiektua sendotzeko" sortua, lerro horrek duen automatizazio-mailari eta malgutasunari esker. Hala, orduko 300 automobil-bloke eta 150 ibilgailu industrialdako bloke produzitu ditza-

ke lerro berriak; hau da, urteko 100.000 tona baino gehiago, orain arte taldeak martxan zituen bi lerroek batera egiten zutena.

Abantaila garrantzitsuak

Fagor Ederlan taldearen esanetan, lerro berriak abantaila batzuk ematen ditu: hain zuzen, produktu arindua eskaintzen du, motor-bloke meheago eta perdoi txikiagokoekin. Horrez gain, kaxa-tamaina handiagoa duenez, ibilgailu industrialdako motor-bloke eta kulata mota gehiago ekoiztu ditzake, eta koste lehiakorragoak eskaini bezeroari.

Jose Zarauz | Biltzen zerbitzuko legelaria

"Erregulazioa lortzeko, hiru urteko egonaldia eta lan eskaintza izatea eskatzen zaio atzerritarrari"

- ▶ Aretxabaletako Udalak Atzerritartasun Legeari buruzko hitzaldia antolatu zuen
- ▶ Legea 2000. urtekoa da, baina 2009an moldatu zuten azkeneko aldiz

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA

Eusko Jaurlaritzako Biltzen zerbitzuko legelari Jose Zarauzek atzerritartasunaren gaineko hitzaldia egin zuen eguenean Arkupen. Atzerritarrek dituzten betebeharrak eta eskubideak zeintzuk diren azaldu zuen.

Zein helbururekin antolatu dituzue atzerritartasunaren gaineko jardunaldiak?

Eusko Jaurlaritzak antolatutako hitzaldiak dira, udalekin eta Biltzenekin elkarlanean. Atzerritartasun Legearen gaineko ezagupenak eskaintzea da helburua, batez ere atzerritarrak direnei, baina baita atzerritarrekin lan egiten duten profesionalei ere.

Legearen gainean ezjakintasuna dago, baina batez ere informazio faltsu asko mugitzen da?

Jendeak asko daki, baina gertatzen da informazio asko faltsua dela. Atzerritarren egoerak eta eskubideak zeintzuk diren jakiteko interesa izaten dugu; baina interes horrek, era berean, informazio txar asko ere ekartzen du. Hau da, horrenbeste berba egiten da, gezur asko sortzen dira. Guk legea zer den azaltzen dugu, baina hitzaldiok, era berean, balio dute faltsuak diren zurrumurruak isiltzeko.

Zer dio legeak?

Atzerritartasun Legea Atzerritarren eskubide eta askatasunen eta haien gizarteratzearen lege organikoa da. Immigrazio fluxuak erregulatu ditu, eta erresidentzia eta lan erregulazioak lortzeko egin beharreko gestioak arautzen ditu. Legearen premisa da atzerritarrek bizileku eta lan-bisarekin etorri behar dutela; baina, azkeneko urteetan, atzerritarrek beste bide batzuetatik sartu eta lan egiten dute. Hortaz, horrek sortzen du modu erregularrean daudenen kolektiboa. Hitzaldi hauen bitartez azaltzen dugu: nola erregulatu pertsona bat, nola lortu bizileku eta lan-baimena, euren senideak nola ekarri hona eta nola lortu espainiartasuna. Gainera, atzerritarren eskubideak, osasunari, hezkuntzari eta gizarteratzei dagokienez.

Atzerritik datorren batek nora jo behar du bere eskubideak zeintzuk diren jakiteko?

Administrazio guztiek emango diote informazioa. Alde batetik, Estatuko administrazio orokorra dago. Hor, erregulazioa lortzeko eman beharreko pausoak zeintzuk diren azalduko diote atzerritarrari. Eusko Jaurlaritzak informazioa emango dio, beste era-kunde batzuekin elkarlanean:



Jose Zarauz, Arkupe kultura etxearen aurrealdean. | A.E.

Caritas eta Gurutze Gorria, esate baterako. Azkenik, hainbat udalek ere izaten dute informazio zerbitzua.

Erregulazioa lortzeko eman beharreko pausoak aipatu dituzu. Zeintzuk dira pauso horiek?

Eskatzen dutena da hiru urteko egonaldia herrialdean eta lan eskaintza bat izatea. Hiru urteko egonaldia eroldaren bitartez erakusten da. Lan eskaintzari dagokionez, kontratatzerako baldintzatutakoa izan behar du. Behin erregulazioa onartzen denean,

"Lurraldetasunaren edo odolaren bitartez ematen da nazionalitatea"

"Delitua egin duen atzerritarra beste edonor bezala epaituko dute"

Gizarte Segurantzaren alta emango zaio pertsona horri.

Atzerritarren semei dagokienez, ze egoeratan egongo liriteke?

Bi sistema daude nazionalitatea jaiotze emateko: odolaren sistema da bat eta lurraldetasunarena da bestea. Herrialde bakoitzak berea dauka. Espainiako Estatuan odolaren sistema erabiltzen da: hau da, espainiar nazionalitatea dutenen seme-alabek bakarrik izango dute espainiar nazionalitate eskubidea jaiotzez. Beste herrialde batzuetan beste modu

batera ezartzen da nazionalitatea: adibidez, Brasilen. Han lurraldetasunaren arabera ematen dute nazionalitatea. Hortaz, brasildar bikote batek haurra izango balu Espainian, zer gertatuko litzateke? Haur hori nazionalitate bakoa izango litzateke. Kasu horietarako, nazioarteko giza eskubideen hitzarmen batzuk ezartzen dira, eta, kasu horretan, Espainiak nazionalitatea eman beharko lioke haur horri.

Hitzaldian, delituak egiten dituzten atzerritarrei buruz ere hitz egin duzue.

Delituen bat egin duen atzerritarra beste edonor bezala epaituko dute, eta zigorra baldintza beretan bete beharko du, gainera. Atzerritar hori modu irregularrean baldin badago, herrialdetik botako dute, gizar-tean inolako sustraitze gradurik ez badauka, behintzat. Delitua egin duen horrek, gainera, erregulartzeko arazo gehiago izango ditu; izan ere, aurrekari penalak bertan behera geratu arte ezin izango du erregulaziorik lortu. Ziurrenik, delitua egin duenak ezin izango du baimena berri-tu.

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen kasua ezberdina da?

Bai, legeak modu berezian babesten duen kolektiboa da. Indarkeria matxista jasan duen emakumeak lan eta bizileku baimena izango du, bai berarendako eta baita adingabeko seme-alabendako hurrungo bost urteetan.

Horrelako hitzaldietan jendeak zer galdetzen du gehien?

Denetik galdetzen dute, eta, gainera, gero eta zalantza gehiago sortzen dira. Erregulazioa, baimenen berritzea, familiaren egoera, nazionalitatea... horiek izaten dira zalantza nagusiak.

Araudi hau noizkoa da?

Gaur egungo legea 2000. urtekoa da, eta gerora hainbat hobekuntza egin dira: 2003an eta 2009an.

Espainiako legeak Europako gainerako herrialdeetako legediaren ildo bera jarraitzen du?

Bai, immigrazioari dagokion politika antzerakoa da herrialde gehienetan. Europara sartzeko araudia antzerakoa da herrialde gehienetan.

Azkenaldian herrialdera sartzeko baldintzak gogortu egin dira?

Ez, berdina da. Azkeneko urteetan aldatu dena immigrazio fluxua da, askoz atzerritar gutxiago etortzen dira orain. Nikaraguitik eta Paraguitatik datoz atzerritarrak, gehienbat.

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu
zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



YERA SANCHEZ. 2011ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MAIERERRASTI. 2011ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GAIZKA UNTZUETA. 2011ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non aterakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan aterakoa izatea edo beste uda batekoa.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa EOS, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek etabailarako argazkilaria profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daitezke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.


- 12 megapixel.
- AF fokatzeko sistema, 9 puntukoa.
- HD bideo-grabazioa.
- ISO 100-6400 sentsibilitatea.
- 2,7 hazbeteko pantaila.
- EF eta EF-S objektibo guztiekin bateragarria.



2. saria: Cantabriako bi lagunendako astebukaera batetako egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Canon

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

aisia HOTELES

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Xabier Sarasua | Aralarko Euskara eta Kultura zinegotzia Aretxabaletan (2003-2007)

- ▶ Aralar kanporatu egin zuen EAJk Gobernutik
- ▶ Arkupeko obrak egin, adostu eta erabaki zituzten
- ▶ Kiroldedia egiteko irizpide eta proiektua onartu zen

"Ardurak hartu genituen, baina ardura horiek aurrera ateratzeko eskumenik ez geneukan EAJrekin"

MAIDER ARREGI | ARETXABALETA

Xabier Sarasua aretxabaletarra Aralarren bultzatzaileetako bat dugu bailaran. Euskara eta Kultura zinegotzi izan zen 2003-2007 agintaldian. Ilusioz bizi duela une politiko hau azaldu digu Sarasuak:

Aralar lehen aldiz aurkeztu zen.

Aralarren bultzatzaileetako bat nintzela, hauteskundeak etorri ziren orduan; eta benetan zerbait aldatu gura bazen, beharrezkoa zen udaletan presentzia hori izatea. Zalantza izan nuen – bi ume txikiren aita nintzen – Udalean sartu edo ez; baina aitak animatuta sartu nintzen, herriaren alde lan egitea beharrezkoa zela esan zidan-eta.

EAJrekin osatutako gobernu.

Botoen gehiengoa EAJk atera zuen eta alkatetza, Arritxu Olibenekin. Egoera zaila zen, beste ezker abertzalea legez kanpo zegoen-eta. Guk herritarren alde ahal zena egin eta kudeatzeko aukera izan genuen.

Desadostasunak etorri ziren.

EAJrekin ez zen oso elkarlan erraza izan; errezelo handia zeukaten eta guk informazio gutxi geneukan gai askoren inguruan. Gure akatsa izan zen ez genuela bermatu gure erabaki ahalmena. Ardurak hartu genituen, baina

ardura horiek aurrera ateratzeko eskumenik ez geneukan. Horrek arazoak ekarri zituzten, erabaki batzuk hartu gura genituen-eta ondoren, alkateak atzera egiten zuelako. Gure ardurak ezin bete eta herritarren aurrean ezin justifikatu geratzen ginen hala. Horrela jarraitzeak ez zeukan zentzurik, gure ustez.

Aralar gobernutik bota zuen EAJk.

Ardurekin batera eskumenek etorri behar zuten. Proposamen bat jarri genien mahai gainean eta hasieran baiezkoa etorri zen EAJren aldetik. Baina, martxan jarri aurretik, alkatearen aldetik neu Gobernutik botatzen ninduela etorri zen; pertsonalki nirekin

desadostasunak zituztela argudiatuta. Aralarren bozeramailea nintzen eta neuk azaldutako desadostasunengatik ni botatzea zela egokiena uste zuten. Baina Aralarren erabakiak denon artean hartzen genituenez, herritarrak nahasteko amarru bat besterik ez zen; beraz, ez ginen irten, bota egin gintuzten. Ez dut uste elkarlanerako prestatuta zeudenik.

Kiroldedia orduan abiatu zen?

Kirol-etxearen azpiegitura hobetzeko beharra aurreko agintaldietatik zetorren. Gurean kultura arloari eman zitzaion garrantzia herriko eskaera eta beharrei erantzuteko. Ondoren hasi zen kiroldegiko proiektua eta ondo-



Xabier Sarasua, kiroldegi berriaren aurrean. | MIRARI ALTUBE

rengo agintaldian obra hasteko proiektua abiatu zen. Parte-hartzea egon zen eta ereduaren gaineko adostasuna egon zen. Ni kritikiko samar agertu nintzen eta zaharra bota behar hura egokitzeko aukera ere jarri nuen mahai gainean. Baina eragile politiko guztiek eta bileretan parte hartu zuten herritarrek kiroldegi berria egitearen alde egin zuten. Ez zen kalkulatu geroa ekarri zituen ondorioak. Izan ere, Diputaziotik ez genuen inolako dirulaguntzarik jasoko eta Udalak kudeatu beharko zukeen. Baina inor ez zen aurka azaldu. Gerora entzun ditut proiektuarekiko kritikak.

Arkupe ere abiatu zenuten.

Eragile askoren artean egin zen proiektua izan zen. Denei erantzutea eta parte-hartzailea izatea zen asmoa. Adostu, proiektatu eta eraiki genuen eta lan txuku-

na egin zela uste dut, eragile guztiei erantzunez. Hurrengo agintaldiarendako geratu zen kultura etxearen kudeaketa. Gure ereduaren herriko kultura mugimendua bultzatzea. Horrek kudeaketa mistoa eskatzen du, Udalaren kontrola eta finantzaketa; eta bestetik, herritarren parte-hartzea. Eredu horren aldekoa naiz, kudeaketa kanpoko enpresa baten esku utzi ordez.

Zer eman dizu politikak?

Eman baino, jaso egin dut gehiago. Asko ikasi dut eta jende interesgarria ezagutu dut; zikinkeria ere ikusi dut. Gertutik jarraitzen dut eta momentu berri hau ilusioz bizi dut. Behar handia dago politikari eta erakunden kudeaketa-ri buelta bat emateko. Badut itxaropena asmatuko duela ikuspegi abertzale eta ezkertiarretik diharduen mugimendu zabal berriak.



Euskararen Egunaren harira egindako mahai ingurua, 2006an. | MIRARI.A

ANTZUOLAKO JAIK

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA ETA JAIK | ANTZUOLAKO JAIEN SAIO BEREZIAK

UZTAILAK 16, 20:15 | MAGAZINEA

UZTAILAK 20, 22:15 | JAIK

TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA



HERRIAK

BERGARA

Bergaran ikusi eta bizi izandakoaz bisitariak asetzea helburua

Turismo Bulegoa irailaren 30era arte dago zabalik; dagoeneko 600 bat bisitari izan dira

EDU MENDIBIL | BERGARA

Turismo denboraldia martxan da Bergaran. Azken urteotan jasotako erantzunarekin, etorritako bisitari kopuruarekin, pozik dira Udaleko arduradunak eta hori dela eta aurten ere zabalik dago Turismo Bulegoa udaletxe-ko sarreran.

Aurreko urteotan bezala Nis enpresa arduratuko da bisitariak hartzeaz; Alaia Aberasturik eta Jon Arroitzak jardungo dute lanean. Ohitura bilakatu den moduan irailera arte izango da zabalik Turismo Bulegoa, hilaren 30era arte hain zuzen, 10:30etik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara. Domeketan, berriz, goizez bakarrik zabalduko dute, 13:30ak arte.

Plaka informatiboak

Aurten ere bisita gidatuak izango da Turismo Bulegoaren eskaintzetako bat. Era berean, Bergara monumentalaren gaineko mapa kaleratu dute eta hainbat jauregi eta monumentuetan fitxak jarri dituzte, herriko ondarearen balioa azpimarratzeko. Guztira, ondarearen gaineko informazioa ematen duten 40 plaka eta lau panel handi jarri dituzte herriko ondareko zenbait elementutan.

600 bisitari dagoeneko

David Zapirain Udaleko Museoko Teknikariaren arabera, Bergarara datozen turista edo bisitarien satisfazio maila asetzea da helburu nagusia. Zapirainek emandako datuen arabera, dagoeneko 600 bat bisitari etorri dira aurtengo udako denboraldia abian jarri zutenetik. Era berean, 150 lagun inguruk hartu dute parte egindako bisita gidatuetan. Ekai-



Bergarako hainbat tokitan plaka informatiboak jarri dituzte, ondarearen balioa azpimarratzeko asmoz. Goiko irudian, Jauregi Etxekoa. | EDU MENDIBIL

naren lean zabaldu zuten aurten Turismo Bulegoa.

Bestelako altzorak ere bai

Gaur egun turismoa indartzea guztiz beharrezkoa jotzen du Zapirainek. Bergarak, elementu historiko eta artistikoez gain, bestelako aberastasunak ere badituela nabarmentzen du museoko teknikariak: "Beharbada kanpo-

tarrei deigarrien egiten zaien gauzetako bat inguruak izaten dira; horren adibide dira gertuko mendiak eta herriko parke eta lorategiak. Eta aurten, beste nobedade bat izango dute bisitariak, *Bergara koloretan* ekimenari esker, herri barruan hutsik dauden lokalak Bergarako artistek auren artelanekin apaindu dituztelako". Aipatutako ekimena San Juan bezperan inauguratu zuten, arrakasta handiz gainera: herriko 40 lagun inguruk hartu dute parte.

Bisitariak erakarri


Bestalde, turismo eskaintzaren barruan Bergarako besarkadari buruzko erakusketa iraunkorra ere zabaldu zuten Aste Santuaren atarian, Irizar jauregiko sarreran. Artearekin, historiarekin edo herriko toki eder eta interesgarriekin bisitariak erakartzea eta Bergaran ikusitakoaz gozatzea da helburua aurtengo turismo denboraldiari begira. Bergarara datozenek izango dute azken hitza.



Bergara monumentalaren gaineko mapa. | E.M.

Bergara monumentala, mapa baten

Bergara monumentala izenburuko mapa kaleratu du Udalak eta han jasotzen denez, "atsegin bezain harrigarri suertatzen da Bergarako hirigune historikoa bisitatzea". Era berean, bi bisita egiteko aukera jaso dute bertan, *Ilustrazioa, zientzia, hezkuntza eta berrikuntza* izenekoa eta *Hiru kaleak*. Era berean, azken urteotan bezala, udako denboraldi osoan bisita gidatuak eskaintzeko aukera eskainiko dute Turismo Bulegoan (943 77 91 28 telefono zenbakia).



Alaia Aberasturi Turismo Bulegoan lanean, egunean. | E.M.



Larrain-dantza tradizionala jaiei bukaera borobila emateko. | JULIO CALLEJA



Zinta dantza Oinarin taldeko dantzarien eskutik, plazan. | JULIO CALLEJA



Eriz Magoaren magia. | JULIO CALLEJA



Bergarako Udal Bandak urteroko kalejira egin zuen bi alkateekin. | JULIO CALLEJA



Txosnagunean herri afaria egin zuten zapatuan. | JULIO CALLEJA



Tzeitel Martin gidari. | JULIO CALLEJA



Mairuaren sekitoan Alaitz Jauregi, Bidart txikia esku artean duela. | JULIO CALLEJA



Zezensuzkoa jendez betetako herriko plazan. | JULIO CALLEJA



Urtetako berrikuntzen ostean behin betiko finkatutako alardearen bertsio berria egin zuten. | JULIO CALLEJA

ANTZUOLA

Alarde berria gero eta errotuago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Mendea pasatxo duen tradizioa da Mairuaren Alardea, jaietako egitarauan gorritz markatua dagoena. "Lehen, 50 lagunek hartzen zuten parte; gaurkoan, 180 pasatxo izan gara", azaldu digu Davided. 12 urte daramatza alardean parte hartzen: "8 urte kanoia eramaten egin ditut eta aldaketekin paper berria egitea egokitu zait, mairuaren sekitian joatea. Aldaketak oso ondo etorri dira, alardea zaharkitua eta hiltzeko bidean baitzegoen". "Sekulako lana egin dute; alardea nondik

datorren eta zer ospatzen den jakitera ematea oso garrantzitsua dela uste dut. Inkestean emaitzak oso interesgarriak izan dira, bide onean doa", dio gizonetzko antzuolarrak.

Mairuaren Alardea Biziberritzeko Taldeak bultzatutako berrikuntzak ondo hartu dituzte antzuolarrak. Izan ere, aldaketak positiboki onartu dituztela erakutsi dute egin berri dituzten inkestek. "Guretzako alardea ondare izendatzea oso garrantzitsua da; jendea erakartzeko eta gure jai bizitzeko, ezinbestekoa da horrelako erreko-

nozimendua", gaineratu digu Juan Carlos Gomezek Abd-Al Rhaman III.aren papera egin ostean. "Bukarantz zaldia larritu egin da kanoi ez tandarekin, baina dena ondo irten da eta jendea gustura egon da. Alarde bukaeran etortzen dira asko gustatu zaiela esatera", gaineratu digu Gomezek.

Eta alardeko kapitaina, Joseba Iparragirre, pozik ikusi genuen egindako lana txukun irten zelako. "Jendearen arrera oso ona izan da, kalean zehar zoazela animuak ematen dizkizute", azaldu zigun.

Errotutako berrikuntzak

Orain hiru urtetatik datozen arren berrikuntzak, zapatukoan ere aldaketaren bat ikusi genuen. Bate-tik, lehen aldiz haur txiki batek desfilatu zuen. "Testuinguru aproposa zuten mairuaren sekitian joateko Alaitz Jauregik eta honen alabak Bidart Aizkorrek. Inoiz izan dugun parte-hartzaile txikiena da Bidart", azaldu ziguten Batzordeko kideek. Antonio Deograsiasek, aldiz, Mairuaren zutoihala eraman zuen. "Orain arte haur batek eramaten zuten. Eta Patxi Olabarriari testi-

gua Tzeitel Martinek hartu dio danbor-jotzaileen gidaritzarekin.

Zapatu jendetsua

Eguenean hasi baziren ere jaiak, zapatua izan zen egunik sendoena, alardea ikustera jende asko gerturatu zen-eta kanpotik. Gainera, herri afarian, txosna gunea lepo ikusi genuen. Dantza leku bilakatu zen Zurrategi Gozategirekin eta jendea ez zen atzean geratu, kokil-durik. Eta giro paretsua Joselu Anaiaken erromerian topatu genuena. Gazte zein heldu, gustura!

Askotariko gustuetarako ekin-tzek, beste behin, kolorez eta alaitasunez jantzi dute Antzuola. Hontza igota, datorren urterarte itxaron beharko dute bada.

ANTZUOLA

Antzuolako plaza, txakolinez zipriztinduta eta saiheski erre usainak hartuta

Debagoieneko I. Txakolin Eguna ospatu zuten bertan atzo eta arrakasta izan zuen

GOIATZ ARANA | ANTZUOLA

Arrasateko Otxia txakolina (heldutasun maila onekoa, zapore freskoduna eta edateko erraza), Kataide (gazi-garratz puntu egokiduna, garbia eta edataro onekoa) eta Oñatiko Upaingoa (fina, fruta-gustuduna eta erraz edatekoa). Hirurak dastatu ahal izan zituzten atzo eguerdian Antzuolako Herriko plazan batutakoek; gehienek probatu zuten hiruretatik eta bat baino gehiagok baita errepikatu ere! Gustura edan zuten, fresko-freskoa, eta gustura zerbitzatu zuten ekoizleek eurek ere, ekimena bide onetik zihoala iku-

sirik. Ardo zuri txinpartadunak Giokelako saiheski errearen izan zuen bidelagun; 100 kilo inguru banatu zituzten, pintxotan. Lehen edizioa izanik aurtengoa, aurreikuspenik ez zuten antolatzaileek, baina 13:45erako 1.300 txartel saldu zituztela ikusirik (jan-edanarako), pozik zeuden emaitzarekin eta sinistu ezinik ere bai, hein batean. Eta gazta izan zen atzoko ekimenaren hirugarren osagaia: Gomiztegikoa (Arantzazu), Pikunietakoa (Antzuola) eta Etxezurikoa (Aretxabaleta). Horiek nola dastatu ere ikasi zuten bertaratutakoek, aditu baten eskutik.




Otxia txakolin botila freskoa zerbitzatzeko gertatzen. | JULIO CALLEJA



Plazan batutakoek gustura jan zuten saiheski pintxoak. | J.C.

GURUTZ MADARIAGA
ANTZUOLA

"Gazta nola dastatzen den entzuten egon naiz eta interesgarria izan da, beti ikasten da zerbait. Hiru probatu ditugu eta bereziki bat asko gustatu zait. Gaztazalea naiz, baina ez oso zorrotza".

RAMON ARIZAGA
SORALUZE

"Txakolina oso ona dago, hirurak probatu ditut eta primerakoak hirurak, baita saiheskia ere. Emaztea antzuolarra dela-eta etorri gara eta gustatu zaigu txakolinaren kontu hau".

PELLO IURRITA
ANTZUOLA

"Saiheskia erretzen beroa pasatzea egokitu zaigu. 100 bat kilo ekarri ditugu eta martxa onean doaz; jendeak dio oso ona dagoela. Egun hauek horretarako dira, azkenean: jan eta edateko".

JOSU ERRASTI
ANTZUOLA

"Oraindik ez dut ezer probatu, baina badut asmoa. Itxaron egin beharko dut, ordea, ilara handia dago-eta, arrakasta izaten ari da, antza! Txakolin, saiheski eta gazta, denak probatuko ditut".

IMANOL ETA AIZPEA
ANTZUOLA

"Mendi buelta eginda etorri gara eta gustura egin dugu saiheski mokadua, gosetuta etorri gara-eta! Txakolina ere probatu dugu, hiruretatik, eta oso ona dago, fresko-freskoa".



ARRASATE

AKETZ ZUBIA

Paella bazkaria Santamainetan

Asteburuan Santa Marina auzoko jaiak ospatu dituzte auzotarrek. Egubakoitzean banderaren igoera egin ostean, txokolatadaz gozatu ahal izan zuten gaztetxoek. Zapatu goizean, txarangak auzoko kaleak alaitu zituen lehenik, eta paella bazkaria prestatu zuten ostean; 70 lagun inguru bildu ziren Makatzenako frontoian. Giro atsegina izan zen eta eguraldia ere lagun izan zuten bertaratutakoek.



ARAMAIO

JULIO CALLEJA

Giro ederra Santa Marina jaietan

Arexola eta Arriolako auzotarrek asteburua festa giroan pasatu dute. Egubakoitzeko bertso afarian 80 herritarrek parte hartu zuten, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia bertsolarien konpainian. Zapatuan, berri, bizikleta lasterketan adin guztietako parte hartzaileak izan ziren, 40 guztira. Oro har, antolatzaileak pozik agertu dira jaietan izandako giro onarekin eta jendearen partehartzearekin.



ELGETA

IBAN ARANTZABAL

Bolatokiak gaintu du proba

Salbadorreko bolatokia konpontzen aritu diren dozena bat lagunek afaria egin zuten bertan barikuan eta, ondoren, 45 lagun inguru hurbildu ziren bolatokia probatzera. Giro atsegina izan zen nagusi eta beste herri batzuetatik ere etorri ziren bola bueltan botatzeko sistema berria ezagutzera. Antolatzaileak adierazitakoaren arabera, hurrengo tirada Salbador egunerako dago aurreikusita.



San Isidro edo Axerikoa zubiko lanak aurrera doaz; gaur bertan hasiko dira zubia botatzenu. | JULIO CALLEJA

Gaur hasiko dira Axerikoa zubia botatzen, leherketarik eragin gabe

"Ondare balio handia" duen zubia da, Arrasate Zientzia elkartekoen arabera

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak jakinarazi duenez, Musakolako sarrerako obra gauzatzen dabilen Murias enpresa gaur hasiko da San Isidroko zubia -Axerikoa moduan ere ezaguna- botatzen. Obra arduradunak

adierazi digu lehergailuak erabili barik, mailua duen makina batekin botako dutela zubia eta eraikiko duten berriak ez duela ardurarik izango: "Zulo hutsa izango da, ura azpitik pasa dadin", kontatu du.

Ondarea babestu guran

Eusko Jaurlaritzako ur agentziak sustatu ditu lanak. Oraindik zutik dagoen zubia bota eta berria egin-garatu dute uholde arriskua ekiditeko. Zubia botatzearren kontra azaldu da Arrasate Zientzia elkar-

tea, duen balio historikoagatik; XVIII. mendekoa izan daitekeela diote. Ur agentziako proiektuaren teknikari arduradunari, telefonoz zein idatziz, zubi horrek balio historiko handia duela jakinarazi zioten aspaldi. Gasteiz eta Irun arteko errege-bideko zatia dela, eta Arrasatek gordetzen duen zubi zaharretariko bat dela.

Arrasate Zientzia elkartekoen arabera, askotan eraberritu dute zubi historiko hori, jatorrizko egitura errespetatuz, baina zubia botako zutela jakin zutenean eskaera egin zioten Jaurlaritzari: arrasatearrei zubia osatzen duten harri guztiak itzultzeko eskaera egin zuten. Arantza Otadui elkarteko kideak adierazi duenez, ez dute erantzunik jaso: "Eskaera egin genuen baina ez dakigu ezer, ez digute erantzun. Arrasateorrandako galera historiko handia izango da".

Axerikoa eraisten den azken zubia izatea espero dute, ondarea historiko eta kulturala ondo zaindu beharreko gaia dela uste dute -eta: "Babestea eta balioestea merezi duen ondarea behar bezala zainduta egongo balitz primeran integratuko litzateke gurea bezalako puntako herri teknologikoarekin", diote.

Zabor biltegiak eta beste hainbat gai biharko osoko bilkuran

Harrobi eta meategiak egonkortutako zabor fardoek biltegi kontrolatu gisa ez erabiltzeko aldarrikapena aurkeztuko du EAJk biharko osokoan (18:00).

Horrekin batera, Bildu eta Aralar Udal taldeek frankismoaren krimenen aurkako kereilarako euskal plataformari buruzko mozioa aurkeztuko dute.

Diru-laguntza eskaerak protagonista gaur Tokiko batzarrean

Gaur ere, astelehenero moduan, hainbat gai jorratuko dituzte Tokiko Gobernu batzarrean. Gaion artean, diru-laguntza eskaerak izango dira protagonista nagusiak. Auzoetako jaietarako -Ferrerias kalekoak eta Gesalibar zein Udala auzoetakoak- laguntzak onartu beharko dituzte. Zenbait musika taldek ere egin dute diru-laguntza eskaera.



Kosta ala kosta abenturan parte hartzen ari diren gaztetxoak, begiraleekin batera. | TXATXILIPURDI

Kosta ala kosta abentura primeran doa, kostaldetik geroago eta gertuago

J.B. | ARRASATE

Txatxilipurdiren eskutik Arrasate, Soraluze eta Anoetako 23 gaztek hasi zuten Kosta ala kosta abentura. Ozaetako Ataza auzoan egoitza duten GaraiOn elkarteekin hasi zen uztailaren 5ean: zirkoa, auzolana, bizikleta txangoa... ez zuten aspertzeko astirik izan. Degurixako zelaian bi egun igaro zituzten gero, mendian gal-

duta, eta joan den astean Gatzaga eta Bergarako Elosua auzoan izan ziren, besteak beste.

Sorpresa eta frogak oraindik

"Kostaldea gero eta gertuago dago! Bidean aurkituko dituzten sorpresa eta frogak asko dira oraindik", adierazi dute antolatzaileek. Orain arteko balorazio "ezin hobea" egin dute.

TXALOAK ETA TXISTUAK



JOKIN BEREZIARTUA

Aramaio ibaia, karro eta guzti

↓ Azkenaldian egoera tamalgarrian dator Aramaio ibaia. Ez da lehen aldian isurketa kimiko batek eragindako bitsaren berri ematen duguna baina oraingoan botilak eta beste hainbat zikinkeria dagoela, erosketa karro eta guzti, jakinarazi digu herritar batek. Ingurumenaren zaintza herritar askoren ahotan dagoen garai honetan, gogoetarako tartea uzten dute behintzat.



ROSA URRETA

Duela 25 urte egindako bidai bat aitzaki, bazkari ederra

Musakolako eskolan aritutako lagun talde batek bazkaria egin zuen joan den uztailaren 7an. Elkarrekin orain 25 urte egin zuten ikasketa bidai aitzakia hartuta elkartu ziren, orduko garaiek gogoratzea helburu: "Musakola eskolako lagunek egun ederra pasatzeko aukera izan genuen; bazkaria, berriketa... giro aparta! Aupa Musa!", adierazi digu bazkarian izan zen lagunetako batek. Hala, goiko argazkia bidali du lagun talde horrek erakusteko benetan ederto ibili zirela.



Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du eguaztenean.

Santa Marina eguna etzi eta jai ekitaldiak domekara arte

Astero moduan pintxo-potea egubakoitzean Matxiategin eta dantzaldia jarraian

EDU MENDIBIL | BERGARA

Kanpai jotzearekin eta etxafuego jaurtiketarekin Santa Marinako jaietako hasiera emango diete eguaztenean, eta 20:00etan, mezaren ostean, azken 33 urteotako ohiturari eutsiz, emanaldia egingo du Aritzeta Santa Marina parrokiaren. Imanol Urtzelai zuzendaritzapean, honako piezak eskainiko dituzte Aritzeta 25 kideek: *Tollite hostias* (Camille Saint-Saëns), *Chori Erresinoiula* (Javier Bello Portu), *Gabriel's Oboe* (Ennio Morricone), *Shenandoah* (James Erb), *Cantiga*

de Noiteboa (Julio Dominguez), *Herribera* (Benito Lertxundi), *Carnavalito Quebradeño* (Virtu Marango) eta, azkenik, *Kaiku* (Alexandre Lesbordes).

Boccia eta pintxo-potea

Santa Marina jaietako ekitaldiak domekara arte luzatuko dira. Egubakoitzean, 19:00etan, jaietako hitzordu klasiko bat izango da Matxiategin: boccia txapelketa. Egubakoitzero bezala pintxo-potea izango da hango tabernetan eta 22:00etan, dantzaldia.

Zapatuan, bolo eta toka txapelketa erreriratuaren egoitzan, 11:00etan; 12:00etan salda eta txistorra hara gerturatzen direnendako; 13:00etan poteoa trikitilariak lagunduta; 16:00etan mus, tute eta poker txapelketak; 18:00etan patin lasterketa; 19:00etan buruhandi, jolasak, kukañak eta txokolatada; eta 22:00etan dantzaldia. Domekan ezkondu eta ezkon gabeen arteko futbol partidua eta auzo bazkaria jarraian. Bazkal ostean, puzgarriak eta jolasak gaztetxoendako.



MIZPIRUALDE

Felisa Larrañagak 103 urte bete ditu

Felisa Larrañaga Orozkok, Mizpirualde Egoitzako nagusienak, 103 urte bete zituen egunean, uztailaren 12an. Ez da marka makala Felisak lortutakoa, eta are gutxiago horren itxura onarekin 103 urte betetzea. Lagunen eta familiartekoen zorionak eta opariak jaso zituen, eta Jesus Elortza alkateak ere lore sorta ederra eraman zion erresidentziara. Irudian Felisa, lagunekin, Alazne Irazabal Mizpirualdeko teknikariarekin eta Elortza alkatearekin.

Zirko Loretsuaren 'Florentzio Galdino' ikuskizuna irailaren 7an, Jardun elkartearen eskutik

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Zirko Loretsuaren *Florentzio Galdino* zirko ikuskizuna izango da irailaren 7an, San Martin plazan. Emanaldia 18:00etan izango da eta adin guztiko ikusleendako dago zuzenduta. Jardun elkarteak aurreratu duenez, malabara jokoak, magia jokoak eta pailazoaren saioak tartekatzen dira Florentzio Galdino ikuskizunean.

Udako euskarazko postal lehiaketa deitu du Jardunek; argazki kamera digitala irabazlearentzat

Udak askorako ematen du, eta oportetean urrutira joan edo bertan geratuta ere, istorio txikiek asko esan dezakete. Jarduneko postal lehiaketa nahi beste postal bidal daitezke irailaren 17ra arte. Argazki kamera digitala izango da saria eta epaimahaiak bi gauza nagusi baloratuko ditu. Batetik, postalaren edertasuna, orijinaltasuna eta bestetik, bertan esaten dena nola dagoen idatzita.

San Martin jaietako txosnetarako eskaerak uztailaren 21era arte jasoko dituzte udaletxean

San Martin jaien barruan, irailaren 15ean Udalak jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzeko oinarriak argitaratu ditu Udalak. Bi txozna jarriko dituzte, San Martin plazan bat eta Muni-ben bestea. Adjudikazioa zozketa bidez egingo dute uztailaren 23an eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 21era arte izango da zabalik. Argibide gehiago udaletxean jaso ditzakete interesatuek.

Hurrengo odol ateratzea uztailaren 25ean egingo dute anbulatorioan, eta parte hartzea eskatu dute

Odol Emailen Elkarteak uztailaren 25erako deitu du hurrengo odol ateratzea. Anbulatorioan egingo dute ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era. Herriko odol emailen parte hartzea eskatu dute arduradunek. Abuztuaren odol ateratze bakarra izango da, hilaren 8an hain zuzen Elkartearekin harremanetan jartzeko: 943 76 36 90 (Antonio Herzog) edo 943 76 22 36 (Dulce Rodriguez).

Agorrosin kirolguneko taberna eta kiroldegikoa, lehiaketara

E.M. | BERGARA

Agorrosin kirolguneko taberna-jatetxearen alokairua lehiaketara atera du Udalak. Kontratuaren iraupena bost urtekoa izango da eta hileko gutxienezko alokairua 1.000 eurokoa, BEZA kanpo. Martitzenean argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zerbitzu hori esleitzeko prozedura irekia arautuko duen baldintzen plegua. Informazioa eta oinarriak Agorrosin kirolgunean jaso daitezke, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Proposamenak ordutegi berean udaletxeko 2. solairuan, Bergarako Bihargintzako erregistroan

aurkeztu beharko dira. Abuztuaren 1era bitartean jasoko dituzte eskaerak.

Kiroldegia: hilaren 20ra arte

Bestalde, Labegarrietako kiroldegiko tabernaren ustiaketa eta instalazioaren kontrola eta garbiketa ere lehiaketara atera berri ditu Udalak. Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da hasiera baten. Lizitaziorako gehienezko kopurua 16.475 euro izango da, BEZ kanpo. Informazioa eta oinarriak Agorrosin kirolgunean. Kiroldegiko kasuan, proposamenak uztailaren 20ra arte jasoko dituzte udaletxean.



Agorrosingo tabernarako eskaerak abuztuaren 1era arte jasoko dituzte. | GOIENA



Jose Antonio Urteaga, Argentinara bidaltzeko materialarekin, Bidebarrietako lokalean. | MIREIA BIKUÑA

Argentinarako material bilketa eten egin dute

Lokala beteta dute eta 32. edukiontzia ez dute irailera arte kargatuko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hermansoloñak, Argentinako elkartasun taldeak, hara bidaltzeko material bilketa etetea erabaki du. Arrazoa: 32. edukiontzia atzeratzea erabaki dute. "Bidebarrietako lokala gainezka daukagu, eta udaberrian bidali genuen edukiontzia oraindik Argentinako aduanan dago, banatu barik", esan digu Hermansoloña taldeko kide Jose Antonio Urteagak.

Aduanan dagoen edukiontziko materiala hango proiektuetan

banatu arte, ezin izango dute 32.a etiketatu eta bidali. Hori horrela, Bidebarrietako lokala ezin izango dute hustu. "Material asko daukagu. Kontuan izan behar dugu otsailean bilketa eten egin behar izan genuela Argentinako gobernuak dohaintzara bideratutako inportazioetan oztopoak ipini zizkigulako", dio Urteagak.

Irailen zabaltzeko asmoa

Euren asmoa da 32. edukiontzia-rekin hastea, eta 31.a banatu

bezain pronto, Bidebarrietako lokala zabaltzea. "Irailaren 15erako zabaldu gura genuke. Uda-ko oporren ondoren. Bien bitartean, materiala etxean gordetzea eskatuko genuke. Hori egin ezin duenak, edukiontzi zurietan utz dezake materiala", diote.

Hiru edukiontzi urtero

Argentinako elkartasun taldeak hiru edukiontzi bidaltzen ditu urtero. Aurtun, baina, atzerapen handia daukate.



Aparkalekuak eta bidegorria margotu dituzte. | MIREIA BIKUÑA

Errekaldeko lanak bukatu dituzte, aparkalekuekin

Aurreko astean margotu zituzten plazak

M.B. | OÑATI

Aparkalekuak eta bidegorria margotuta, Errekalde auzoko azken zatiko eraberritze lanak bukatutzat eman dituzte. Aurreko astean egon ziren margolariak errepidearen bi aldeetan aparkalekuak margotzen. Bizikletenda-

ko bidegorria errepide erdian ipini dute, Errekalde kaleko buelta osoko bidegorriari jarraipena emanda.

Errekalde auzoko 1. zenbakidun etxetik Bakardadeko Ama kaleraino egindako lanekin, errepidea eta espaloia maila berean

ipini dituzte, irisgarritasun oztopo guztiak kenduta. Hori horrela, oinezkoek, motordun ibilgailuek eta bizikletek bat egiten dute Errekalde auzoan. Hori bai, azken horiek lehentasuna dute.

Aparkaleku gehiago

Metro bateko espaloia egin dute alde bietan eta errepidea estutu egin dute. Hori horrela, Errekalde behera, eskuinaldean, 15 autorentako aparkaleku berriak egongo dira.

Errekaldetik Bakardadeko Ama kaleraino egin diren egokitze lanak herriko merkataritzaguneak sustatzeko egitasmoaren barruan kokatu zituen Udalak. Horretarako dirulaguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

Otadui zuhaitzikoa

Bestalde, aurrera doaz herrigunea eta Zubillaga lotzeko bidegorriaren lanak. Otadui zuhaitzikoa bukatzekotan dago; errepidean asfalto berria bota dute, eta orain, bidegorria margotzea falta da. Kurtzetxoko ermitatik Urbietako baserri ingururainoko bidegorria errepide erdian margotuko dute.

Azkoagaingo garbiketa esleitzeko deialdia

M.B. | OÑATI

Ekaineko osokoa Azkoagaingo garbiketa lanen esleipena egiteko deialdia onartu zen. Gainera, deialdiari, lan merkatuan sartzeko arazoak dituzten kolektiboen gizarteratze izaera gehitzea adostu zen. Hori horrela, lehiaketara aurkezten diren enpresak baloratzeko orduan langileak gizarteratzeko ahalegina kontuan hartuko dute. Deialdia ekainaren 25eko Gipuzkoako Aldizkarian publikatu zuten, eta interesatuek hilabete epea dute –hilaren 25era arte– eskaerak aurkezteko. Aurkeztu beharreko agirien gaine-

ko informazio guztia www.oinati.eu atarian dago.

Futbol zelaia garbitzeko proposamen onena egiten duen enpresari bi urteko kontratua egingo dio Udalak. Kontratua beste hiru urtez luza daiteke.

Udala-Aloña hitzarmena

Udalak Aloña Mendirekin duen hitzarmenaren arabera, Udalak 2010ean bere gain hartu zituen kirol instalazioak garbitzeko ardurak, eta Bidebarri enpresa kontratatu zuten. Urtebeteko kontratua aspaldi bukatu zitzaion, eta orain, zerbitzua emateko deialdia egitea erabaki dute.

Etxe kaleratzeen kontrako sinadurak

M.B. | OÑATI

Stop Deshaucios-ek eta Ezker Anitzak etxe-kaleratzeen kontrako sinadura bilketa kanpaina egiten dihardute herri-rik herri. Eguenean, hilaren 19an, Oñatiko plazan ipiniko dituzte mahaiak, 18:30ean. Stop Deshaucios elkarteak kideak egongo dira informazioa banatzen eta zalantzak argitzen.

Oñatin batutako sinadurak, Debagoienean jasotako gainerrako 700 sinadurekin eta Estatu osoan egindako kanpainan jasotakoekin, Kongresura eroango dituzte. Haien asmoa herri ekimen legegilea aurkeztea da, etxe-kaleratzeak legez saihestu ahal izateko. Herri ekimena aurkezteko 500.000 sinadura batu behar dituzte urriaren 30a baino lehen.

Energia Egunen karabana gaur eta bihar

M.B. | OÑATI

Energiaren Egunen karabana Oñatira heldu da. Gaur eta bihar Foruen plazan egongo da: bizikletak, ibilgailu elektrikoak eta hibridoak, informazio-gune interaktiboak eta gazteendako bizikleta eta auto zirkuitu puzgarriak egongo dira, 11:00etatik 20:00etara arte.

Gainera, gidatze eraginkorren gaineko ikastaroak egingo dituzte, doan. Eskaerak www.energiarenegunak.com helbidean egin behar dira.

Karabanaren helburua da herritarrek aurrezpenaren inguruan eta energia-eraginkortasunaren inguruan kontzientzia hartzea eta inplikatzia. Karabana Alkateen Ituna sinatu zuten herrietan ibiliko da.

Zarauzko hondartzara egun osoko irteera egingo dute gaztelekuko kideek egunean

Topalekuak udarako antolatutako ekintzen artean, gazteen artean *klasiko* bilakatu den hondartzarako irteera egingo dute hilaren 19an: egun osokoa izango da, Zarauzko hondartzara. Autobusez joango dira, eta, Zarautzera helduta, eguzkia hartzeko, bainatzeko, paseatzeko eta harearekin jolas egiteko aukera izango dute gazteek. Eguzkitarako krema eta hondartzarako gainerako gailuak norberak eraman beharko ditu. Parte-hartzaileek gurasoen edo tutorearen baimena beharko dute.

Baserrietan sortutako plastikoak eta berotegietakoak batuko dituzte hilaren 24an

Baserrietan sortutako plastiko beltzak eta zuriak, belar-boletakoak eta berotegietakoak batuko dituzte hilaren 24an. Oñatin lau lekutan utz daitezke plastikoak: Olabarrietako autobus geltoki ondoan; Eteo atzealdean; Murgiako Asentzio ermita ondoan; eta Zañartun, Zuazola zubiaren ondoan. Plastikoak aurreko eguneko 17:00etatik aurrera utzi behar dira aipatutako lekuetan. Oporren ondorengo lehen bilketa, berriz, irailaren 25ean egingo dute ohiko lekuetan.

ESKORIATZA

Alberto Letona | Marineko auzo alkatea

"Marineko Madalena jaiak berreskuratu nahi ditugu"

Zapatu eta domekan, hilak 21 eta 22, ospatuko dituzte auzoko jaiak; festa kanpaiak, auzo afaria, trikitixa, meza eta luntxa izango dituzte asteburuan

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Eskoriatzako Marin elizateko Alberto Letona auzo alkatearekin egon gara. Izan ere, asteburuan Madalena jaiak ospatuko dituzte auzoan.

Aurten aspaldiko partez ospatuko dituzue Madalena jaiak, ezta?

Bai, Eskoriatzan zazpi elizate gaude eta Udaletik aukera eman ziguten zazpi horietako baten jaiak antolatzeke. Orduan nik esan nuen baietz, aurten Marinen antolatuko genituela, eta azken hiru urtetan Madalenetan auzo afari bat egin izan arren, aurten aukera izango dugu musika eta guzti jaia behar den bezala ospatzeko. Horrela hasiko gara eta ikusiko dugu ea ahaztuta geneuzkan jaiekin etorkizunean jarraitzen dugun.

Zein egitarau prestatu duzue astebururako?

Madalena bezperan, hilak 21, kanpaiak jo eta etxafuegoak botako ditugu jaiei hasiera emateko. Etorriko dira baita ere urtero moduan Arientzako kanpai jotzailak eta kontzertutxo bat eman-



Alberto Letona auzo alkatea. | A.T.

go digute kanpaiekin. Afaltzeko, 21:00ean auzo lokalean elkartuko gara auzotar gehienak, 42 lagun inguru. Esan moduan badira hiru urte afari hori egiten dugula eta egia esan auzotarron arteko harre-

"Auzo afaria duela hiru urtetatik egiten dugu eta 42 auzotar elkartzen gara"

manak sendotzeko balio izaten digu eta oso ondo pasatzen dugu. Eta gauean trikitilariak izango ditugu: Laja eta Narbaiza. Hiru ordu inguruko emanaldia egingo dute eta espero dugu jendea etortzea eta dantza egitera animatzea. Ea zarata apur bat ateratzen dugun! Eta domekan 12:00ean meza izango dugu eta horren ostean, mokadutxo batekin emango diegu jaiei amaiera.

Zenbat urte daramatzazue jaiak ospatu gabe?

Urte asko dira dagoeneko... agian 30 urte edo izango dira jaiak ospatu ez ditugula. Lehen jai oso onak egiten ziren Marinen Madalenetan eta jende asko etortzen zen; etxe guztietan gonbidatuak izaten ziren, baina ohitura horiek galdu egin ziren. Orain ea beste modu batera berreskuratzen ditugun.

Zein mezu bidaliko zenieke auzotarreri eta herritarrei?

Etortzeko Marinera. Oso leku polita da eta dantza egiteko aukera egongo da. Tabernatxo bat ere jarriko dugu gainera.

ARETXABALETA

Hainbat kultura hitzorduz gozatzeko aukera, astean zehar

Filma, berbaldia eta antzerkia egongo dira

A.T. | ARETXABALETA

Aste honetan guztian zehar Aretxabaletan hainbat kultura hitzordu izango dira: *Gartxot* filmaren proiektzioak; Asier Urmeneta filmeko zuzendariaren berbaldia eta Oihulari Klown taldearen eskutik *Pronostiko erresebatua* antzezlana gozatu ahal izango da herrian.

'Gartxot' filma

Arkupeko Zاراia aretoan eskainiko dute *Gartxot* filma egun eta ordu hauetan: gaur, astelehena 17:00ean eta martitzenean eta eguenean 21:00ean. Sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Asisko Urmeneta

Komikilari nafar ezagunak eta *Gartxot* filmaren zuzendari Asisko Urmenetak, berbaldia eskainiko du martitzenean Arkupeko Zاراian, bere filma eskaini aurretik. 20:00ean izango da hitzordua eta Urmenetak pelikularen gaineko kontuak azalduko dizkie bertaratzen diren herritarrei. Joaten direnak aukera izango dute baita ere filmari buruzko euren galderak zuzenean egileari egiteko. Berbaldiaren ondoren, 21:00etan, filma emango dute bertan.



Asisko Urmeneta. | DIARIODENAVARRA.ES

Antzezlana

Eguaztenean herriko plazan bertan izango da zertaz gozatu. Oihulari Klown taldeak *Pronostiko erresebatua* izeneko antzezlana eskainiko du 19:00ean.

Mediku talde ganoragabeko bat iritsiko da herrira eta kalean aurkitzen duten jendeari azkereta medikuak egingo dizkiete clown kodigoa erabilita. Gainera, pailazoak goxotasuna eta umorea errezetzeko prest etorriko dira pronostiko eta iragarpen guztien kontra.

ARETXABALETA

Mertxe Idigoras saritua

Aretxarte elkartean joan zen asteko saritua Mertxe Idigoras izan zen. Txilarra belar-dendan erosketa egin ondoren, Imanol harategian jaso zuen saria eta txuletak irabazi zituen argazkian ikus daitekeen bezala.



ARETXARTE

ESKORIATZA

Garagardo festa solidarioa antolatzeko bilera egingo da eguaztenean kultura etxean 18:30ean

Eskoriatzako Udala garagardo festa solidarioa antolatzen hasi da irailaren 20, 21, 22 eta 23rako. Egoitzako patronatuaren eskara bati erantzunez antolatuko dute festa eta bertan batutako dirua zaharren egoitzara bideratuko dute egoitza diru premian dagoelako. Garagardo festa antolatzen hasteko, bilera bat egingo da etzi, eguaztena, kultura etxean 18:30ean. Laguntza emateko prest dauden pertsona guztiak daude bilera horretara gonbidatuta eta Udaletik gainera diote festa hori antolatu ahal izateko eskoriatzarren laguntza "beharrezkoa" izango dela. Udaletik espero dute lagun guztien elkarlanarekin, indarrarekin eta lanarekin, irten daitekeela talderen bat horretan laguntzeko.



ARETXABALETA

ARETXARTE

Saria Niko Orobengoarendako

Hilaren 6an Martin Bitxitegian lehen erlojua erosi zuen pertsona izan zen Niko Orobengoa, horregatik, berak jaso zuen Orly Pub-en eskutik botila sorta bat. Argazkian Julen Barandiaran, Niko Orobengoa eta bere bi ilobak azaltzen dira Orly Pub-en. Bertan ikus daitezke baita ere sariagatik lortu zituzten botilak. Uztailan bi sari banatu dituzte momentuz eta hurrengo asteetan ere banatuko dituzte. Abuztuan, berriz, zozketa bat egingo dute zabalik dauden dendek.

ARETXABALETA / ESKORIATZA



UDAERO

Zarautzera surf egiten ikastera, Udaeretik

Joan zen astelehenean, hilak 9, Aretxabaleta eta Eskoriatzako hainbat gazte surf ikastaroa egitera joan ziren Zarautzera. Bertako surf eskolakoekin surf egiteko teknikak ikasi zituzten eta egun polita igaro zuten hondartzan eta lagun artean. Udaeretik joan ziren gaztetxoak Zarautzera surf egitera eta antolatzaileek iterearen balorazio "oso ona" egin dute.



Elgetako neska-mutiko taldea, Maalako ur putzuetan. | LZ

ELGETA

Iaz ez bezala, haurrek ur putzuak izan dituzte aurten Maalako parkean

Udalekuetako neska-mutikoen eguaztenean, hilak 18, egingo dute irteera Oñatira; 13:30ean etorriko dira bueltan Elgetara

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Uztaileko klasiko bihurtu dira dagoeneko, eta Maalako ur putzuek ez dute aurten kalerik egin. Eguraldiak lagunduta, hasiera batean ipini zituzten igerilekuak. Aurten, hiru igerileku egon dira bi egunez —eguenetik barikura— Maalako parkean. Bi igerileku erosi berriak izan dira; putzuek ziren biak, alegia. Hirugarren ur putzua aurreko urteetako igerileku txikia zen; izan ere, aurten putzu handirik ez ipintzea erabaki dute udal arduradunek. Bariku goizean txirristadun igerilekuak ere ipintuta zirela ziren, baina hondatuta zegoen.

Uztaileko udalekuetako haurrak izan dira lehenak aurtengo ur putzuak estreinatzen. Hiru taldeak —txikiak, ertainak eta handiak— ibili ziren plisti-plasta

ur putzuetan. Norbera eta inguruko gainerako guztiak busti, dinamizatzailerekin ur festa egin... gustura eman zituzten bai eguneko bai barikuko goizak parkean. Arratsaldean ere zabalik egon ziren Maalako ur putzuak. Sorosle ikastaroa eginda duen Leire Ibaibariagaren zaintzapean, hiru putzuetan jolasean egiteko aukera izan zuten herriko neska-mutikoen, 15:30etik 19:30era. Esan gabe doa egun bietan digestioa bereziki luzea egin zitzaizela haurrei; ez ziren igerilekuetara nahi orduko iritsi. Iaz eguraldiak ez zuen lagundu, eta haurrak ur putzu barik geratu ziren. Aurten, ordea, eguraldia portatu da, eta hitzorduak ez du kalerik egin.

Irteera eguaztenean

Uztaileko udaleku irekiak erdialdera iritsiak dira dagoeneko.

Gaur, astelehena, hirugarren asteari emango diote hasiera, eta *Naturarekin bat* lelopean hainbat ekintzarekin gozatuko dute haurrek. Asteko ekintza nagusietako bat eguaztenean, hilak 18, egingo dute. Oñatin egingo dute goiz pasa udalekuetako haurrek.

Ludotekako batzarra

Udalak, bestalde, ludoteka zerbitzuaren gaineko batzarra deitu du martitzenerako, hilak 17. Ez dira otsailean egindako erabilitzaile aurreikuspenak bete, eta udal arduradunek gurasoekin konpartitu nahi dute egoeraren gaineko balorazioa. Etorkizunari begira ezinbestekotzat jotzen dute zerbitzua ekonomikoko bideragarria egitea, eta gurasoekin aztertu gura dute gaia. Batzarra udaletxean egingo dute, 19:00etan hasita.

tegian jai bezperan eta meza nagusia izango da Eskoriatzako abesbatzak lagun eginda Dorletako Amaren egunean, zapatua. Horiekin batera izango dira Otxandiotik datozen lagunei ongietorria; umeendako jolasak; hainbat eratako kontzertuak, tartean rock doinuak; mus eta briska txapelketak; Dorleta pilota txapelketako finalak; eta mendi bizikleta zeharkaldia.

Azken urteotan herri afaria egin izan dute jaietan, baina aurten afaria beharrezko bazkaria egiteko asmoa agertu dute Kultura Saileko kideek. Hemendik eta uztaile bukatu bitartean kontu guztiak lotuko dituzte.

ARAMAIO

Jaietako saioaren ostean datorren urtera arte agurtu da Papargorri

12 bat saio eskaini ditu aurten abesbatzak; ikasturtea "oso mugitua" izan dela adierazi dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Papargorri abesbatzak bete du beste ikasturte bat. Aurtengoa "oso mugitua" izan dela adierazi digute. Aramaion emandako kontzertuei dagokienez, lau nabarmendu dituzte: Erretiratu eguneko, Olentzeroren jaialdikoa, San Martin jaietako —argazkian— eta Jaunartzeetakoak. Hiru taldek osatzen dute Papargorri abesbatza, guztira 33 kantari daude, adinen arabera hiru taldetan: txikiak 7 urtetik 10era artekoak, erdiak 10 urtetik 14 urtera artekoak eta nagusiak, azkenik, 14 urtetik gorakoak. Entseguak dagokienez, txikiak egunero biltzen dira entseatzeko eta gainerako bi taldeak, berriz,

egubakoitzero—erdikoak 18:00etatik 19:00etara eta nagusiak 19:00etatik 20:00etara—.

Mikel Axpe irabazle zozketan

Urte osoan zehar 12 bat saio ematen dituzte: "Kantaldi horiek ez dira izaten maila berdinekoak, ez zailtasun aldetik eta ezta luzapen aldetik ere", diote. Aramaio kanturako zaletasuna beti egon da eta abesbatzak harrobia ezinbestekoa da zaletasun hori mantentzeko. Eta harrobia badago Aramaion: "Txikiak asko ikasten dute, erdiak oso ondo abesten dute eta nagusiak izugarri onak dira. Bakarka abesten dutenean ere arrakasta handia izaten dute", adierazi dute irakasleek.



Taldea argazkia ikasturte amaierako saioan, San Martin jaietan. | PAPARGORRI

ANTZUOLA

Kirol instalazioen erreserba egiteko epea zabalik dute herritarrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako kirol instalazioetan eguna eta ordua hartu ahal izateko, erreserba eskaera egiteko, epea zabalik dago uztailearen 17ra arte. Hala, irail hasieratik uztaile bukaera bitartean, 2012-2013 denboraldian alegia, eskolako patioan, pilotalekuan edo Eztalan jokatzeko aukera izango dute eskatzaileak, hain zuzen ere.

Erreserba egiten denean ordu bereko talde batek baino gehiagok izena emanez gero, talde horien artean jendaurreko zozketa egingo da. Nolanahi ere, Antzuolako bizilagunek lehentasuna izango dute. Izena emandakoei txandaren emaitzen berri Antzuolako jaien ondorengo astean emango zaie. Hartara, erreserbadunek irail hasieratik egutegi berriaren

arabera jokatzeko aukera izango dute. Zozketaren eta instalazioen gaineko informazio gehiago izateko—pilotalekuan araudia, Eztala futbol zelaiaren araudia eta eskolako patioaren araudia eskuratzeko—, www.antzuola.com udal webgunera jo dezakezue. Bide hauek ere erabil dezakezue erreserba egiteko: bidali mezua kultura@antzuola.net helbidera edo deitu telefonoz 943 76 62 46 zenbakira.

Kirol elkartearen batzarra

Antzuolako Kirol Elkarteak, AKEk, urteko batzar orokorra egingo du eguaztenean. Lehen deialdia 19:00etan da; bigarrena, 19:30ean, Olanaren. Urteko kontuak, batzarkideen aldaketak eta datorren denboraldia izango dituzte berbagai.

LEINTZ GATZAGA

Andramaixak jaietako egitaraua hasita dago itxura hartzen

Irailaren 7tik 9ra ospatuko dituzte; umeendako jolasak, kontzertuak eta kirol ekitaldiak daude

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Kultura Sailak herritarrekin hainbat bilera egin eta gero azken asteotan, Andramaixa jaietako egitaraua itxura hartzen hasita dago. Oraindik ekitaldi guztiak ez dituzte lotuta eta hainbat xehetasun gertatzeko daude, baina uztaile bukatu baino lehen guztia izango dute gertu.

Herri bazkaria

Irailaren 7tik 9ra bitartean izango dira Andramaixa jaiak aurten, iaz baino bi egun gutxiago. Urteroko ekitaldi garrantzitsuenak ekimen berriekin bateratuko dituzte krisia krisi jai dotoreak izan daitezten. Hala, amabirjina bederatziruaren bukaera ospatuko dute Dorletako santu-

UZTAILEKO SARI SORTA


Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.


SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatzeko. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

JOKUA
Bidali KLUBA JOKUA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez
688 69 00 02



Argia

DVDa
Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



Pamiela

LIBURUA ETA DVDa
Bidali KLUBA INTXORTA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



**Intxorta 1937
Kultur Elkarte**

DVDa
Bidali KLUBA GOIKOBALU
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



**Goikobalu
Abesbatza**

KOLOORE KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEA

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
Mezu bidez:
Bidali KLUBA KOLORE
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez
688 69 00 02.



Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.



www.koloore.es.
ESKAERAK:
koloore@koloore.es.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatzeko. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Atera etekina

goienakluba 2012

%25eko deskontua

Argia

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

• %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan
Goiena klubeko kide izanda

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

AQUARIUM

Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

AVIA MECA

gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIENDO

optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

EUREKA!

zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

ESKO SPORT

kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAHIR

fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

GAES

entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER

edertze zentroa
Oñati, 943 78 01 46.

IKER SUKALDEAK

IKER sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA BASOA

parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

LILURA

edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK

denda
Bergara, 943 76 31 45

LASTAI

haurtzaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

MULTIOPTICAS

lehen zerbiztu optikoetan
MULTIOPTICAS optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN

fisioterapia zentroa
Aretxabaleta, 943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI

kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI-URDIN
izotz jauregia
Donostia, 943 46 44 00

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA



Aitor Mendizabal pilota astintzen, kontrarioak begira dituela. | JULIO CALLEJA

PILOTA

Garaipena eskura izan zuen Mendizabalek

- ▶ 21-17 aurretik egon arren, Aritz Lasak eta Zabaletak irabazi zuten
- ▶ Antzuolarrak profesional mailako lehen urtemuga bete zuen atzo

EMAITZA

MENDIZABAL-LASKURAIN

21-22

ARITZ LASA-ZABALETA

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Pena handiarekin bukatu zuen partidua Aitor Mendizabalek. Profesional mailako lehen urtemugan, etxeko frontoian jokatu zuen, lagunaren eta familiakoen aurrean; eta garaipena eskutan

izan arren, galdu egin zuen Laskurain soraluzearekin bikote eginez. "Partidua ondo menderatu dugu. Tanto politik ikusteko aukera egon da, baina zoritxarrez, tanto erabakigarrietan, Lasa eta Zabaletak jokatu dute hobeto", esan zigun partidua bukaeran Mendizabalek.

Tanto politik egon ziren, batez ere, aurreko koadroetan. Mendizabal eta Aritz Lasa aurrelari azkarrak dira, kontrarioaren errematea jasotzeko lurrera erori eta berehala jaikitzen diren horietakoak. Hori horrela, partidua erdian eurak izan ziren protagonista. Biek ala biek dejada ederrak egin zituzten, zabaleran eta txokoan, bikain, eta harmailetan zeuden zaleek txalo zaparradarekin eskertu zituzten tantoak.

Tarte hartan egon zen parekotasun handiena. Bikote urdina (Mendizabal-Laskurain) gai izan zen gorriek hartutako abantaila berdintzeko: 5-1etik 5-5era. Aurretik ere ipini ziren, 6-7 eta 7-9.

Bederatzigarren tantotik 13. era, erremate politik egin zituen Mendizabalek. Sakez ere tantoa lortu zuen.

Ezin azken tantoa egin

Mendizabalek eta Laskurainek pilota aldatu zuten 14. tantoarekin eta zuzenean 19.era joan ziren, zaleen gozamenerako. Bikote gorria hurbildu egin zen markagailuan, baina urdinak heldu ziren lehenengo 21. tantora.

Mendizabalek sakea egin zuen zaleen txalo artean –azken tantoa izango zelakoan–, baina ez zuen asmatu. Atzeko koadroetan huts egin zuen hainbatetan Laskurainek, eta Antzuolako aurrelariak ez zituen ondo defendatu Lasak egindako erremateak. Gorrien azken tantoa ere bikote urdinaren huts baten ondorioz etorri zen.

Galdu arren, Mendizabal gustura zegoen egindako lanarekin: "Ondo jokatu dugu, eta ikusleendako lehia polita izan da. Lasak eta Zabaletak ere asko jokatu dute".

Lehen partidua

Partidu nagusiaren aurreko lehia ere oso parekatua izan zen: Gorka eta Larrinagak 22-21 irabazi zuten Ongay eta Ladis Galartzaren kontra. Larrinaga atzelaria erabakigarria izan zen azken tantoetan.

AITOR MENDIZABAL
PILOTARIA

"Gustura nago profesionaletan egindako lanarekin; urte ona izan da"

2011ko uztailaren 17an Zarautzen debutatu zuen Aitor Mendizabalek profesional mailan, Aspe enpresarekin. Urtebete geroago, urteurrenoko partidua, etxean jokatu zuen Laskurainekin bikote eginez. "Pozik" dago profesionaletan egindakoarekin.

Urtebete profesional mailan. Zer moduz joan da urtea?

Oso pozik nago. Euskadiko elite mailako lau t'erdiko txapelketa irabazi dut Beitiaren kontra. Gainera, partidua asko jokatu ditut, eta gustura nago egindako lanarekin. Balorazio positiboa egiten dut. Azkenaldian, eskuak minduta izan ditut, baina horrek ez du zapuzten orain arte lortutakoa.

Uda sasoiari partidua asko izaten dituzue. Eskuak lehenbailehen sendatzea komeniko zaizu.

Ba bai. Aurrerantzean partidua dezentet jokatuko ditut. Dena den, neguan ere izan ditut lehia



JULIO CALLEJA

gogorrak. Pilotariok ez dugu atsedenik izaten urte osoan. Neguan txapelketak ditugu –hiru dira garrantzitsuenak– eta udan jaialdi asko.

Eskuak ondo izatea garrantzitsua da, baina fisikoki maila mantentzea ere bai. Txapelketetan sasoi onenean egoten gara. Gainerako jaialdietarako sasoi puntu hori gordetzea zailagoa izaten da.

Afizionatu eta profesional mailak oso ezberdinak dira, baina ondo moldatu zarela dirudi.

Afizionatuetan ere asko jokatzen da. Guztiek dute buruan profesionaletarako saltoa, eta oso ondo prestatzen dira. Goian egonda, lasaitzen bazara, atzekoek egurra ematen dizute. Kontuz ibili behar da.

"Fisikoki maila ona mantentzea ezinbestekoa da"



Harmailak lepo bete ziren Mendizabal animatzeko. | JULIO CALLEJA



Natra Oñati taldeko iazko jokalaria eta entrenatzaileak, EBA mailako azken partidua jokatu ondoren. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Partidu guztietan Zubikoa bete duten zaleekin zorra genuen"

"Taulapeko postuetarako jokalaria fitxatu beharko ditugu"

GORKA JUDEZ | NATRA OÑATI

EBAko punta-puntako saskibaloia berriro ere Natra Oñatirekin, irailean

Oñatiko taldeak hutsik zegoen plazetako bat eskuratu du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Martxoaren 30ean bukatu zuen Natra Oñatik EBA mailako ibilbidea, Zornotzaren kontrako partidua galduta. Orduko hartan, pena handiz, eskerrak eman zizkieten harmailetan zeuden zaleei. "Mailako talde txarrena izan gara, baina ligako zale onenak izan ditugu. Eskerririk asko guztioi", esan zuen taldeko kapitain Iñigo Zabaletak.

Zaleen animoak eskertuz agurtu zuten EBA liga, eta zaleekin duten "zor morala ordaintzeko" jokatu dute hurrengo denboraldian maila berean. "Maiatzean denboraldiaren balorazioa egiteko elkartu ginen. Ondo eta gaizki egindakoak aztertu ondoren,

zaleekin zor handia genuela konturatu ginen. Batz bestea, 500 lagun egon ziren iazko partiduetan, eta guk maila eskasa eman genuen. Hori horrela, EBAn hutsik gera zitekeen plazaren bat lortzeko erabakia hartu genuen. Irailetik aurrera 14 talde lehiatuko dira multzo bakoitzean", esan digu Gorka Judezek.

Aurrekontua betetzen zutela ikusita, eskaera egin eta EBArako txartela lortu dute. "Natra Oñati enpresakoak harri eta zur geratu ziren zaleen erantzuna ikusita. Gainera, saskibaloiak bultzada handia jaso du. Iaz emandako diru kopuru bera agindu digute aurrekontua bete ahal izateko. Beste babesle txikiagoek

DATUA

14

TALDE

Hori da EBA mailako multzo bakoitzean egongo den talde kopurua; iaz baino bi gehiago, multzo bakoitzeko.

ere euren ekarpena agindu digute", diote. Baina, duda barik, herritarren laguntza ezinbestekoa izango da denboraldia berme osoarekin betetzeko. "Iaz diru

asko jaso genuen bazkide kanpainatik, sarreren salmentarekin eta zozketekin. Aurten ere euren laguntza beharko dugu", diote zuzendaritza batzordekoek.

Jokalaria eta entrenatzailea EBArako txartela lortuta, orain jokalaria eta entrenatzailea fitxatzeko lanetan dihardute. "Lehen pausua eman aurretik jokalariekin berba egin genuen euren iritzia ezagutzeko. Gehienak ados egon ziren, dena dela, jokari batzuek esan ziguten ez zutela taldean jarraituko", esan digu Judezek. Jokalari horiek dira Ander Mallabiabarrena, Iñigo Biain eta Mikel Biain. Beste batzuek baietz esan zuten

hasieratik: Asier De la Iglesiak, Eneko Blancok, Iban Lizarralde, Ales Anduagak, Gorka Kintanak eta Iñigo Zabaletak. Iagoba Gamarrak ere jarraituko du.

Zalantza esanguratsuenak bi dira: Ander Gartzia bergararra eta Imanol Zeziaga arrasatearra. Biak ala biak fitxatu zituen Natra Oñatik iazko denboraldia martxan zegoenean, taldea zulotik ateratzen laguntzeko. Ez zuten lortu, baina taldeak euren lana eta esperientzia eskertu zituen.

Biak daude goragoko mailetan (LEB Urrea eta LEB Zilarra) dauden taldeen eskeintzei begira. Ez badute ezer lortzen, Aloñako jokalaria izango dira hurrengo denboraldian ere.

Bestalde, fitxaketa bat edo bi egin beharko dituzte taulapeko postuak indartzeko. "Mallabi eta Biainen bajek barruko fitxaketak egitera behartuko gaituzte", esan digu Judezek.

Entrenatzailea lotzea da taldeak duen beste lanetako bat. "Hainbat aukera ditugu. Oraindik ez daukagu izenik, baina ezustekoren bat egon daiteke", diote zuzendaritzakoek.



Txapelketan jokatuak partiduetako bat. | JULIO CALLEJA



Norgehiagoka politik izan ziren txapelketan. | AKETZ ZUBIA



HLB 108ko Jon Ander Ormaetxea, txapelketako jokalaria onena. | ANDER ARIZALETA

HLB 108 jaun eta jabe Zaldibarko 24 orduko txapelketan

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Zapatuan ez zen izan inongo atse-denik Zaldibarren, 24 orduko futbito txapelketa ospatu baitzen. Aurtengo edizioan 19 taldek parte hartu dute, gero eta ezagunagoa bilakatzen ari den txapelketan. Gainera, futbol denboraldia amaiturik, federatutako jokalaria askok parte hartu zuten. Lehenbiziko partidua goiz partean jokatu ziren: 09:00etan zuten jarri-ta hitzordua. Aurreko urteetan

bezala, aurten ere, hasierako fase bat jokatu zuten ekipo guztiek, talde ezberdinetan banatuta. Lehendabiziko partidua horietan lortutako emaitzen eta sailkapenaren arabera, ondoren, kanporaketak jokatu zituzten.

Jende dezente gerturatu zen Zaldibarrera goizeko lehen ordutik, eta bertan sortutako giroa bikaina izan zen. Txapelketa osoan izandako kiroltasuna eta giro ona azpimarratu dituzte antolatzaileek.

HLB 108 txapeldun

Domeka goizaldean jokatu zuten finala, 07:00 inguruan, egun argitan ia, eta HLB 108 taldea atera zen garaile, Susitos Weah taldeari 4-0 irabazi ostean. Talde biak oso lehiakorrak zirela erakutsi zuten arren, HLB 108 taldeak txapelketa modu erosoan irabazi zuela esan daiteke. Izan ere, ez zuen partidua bera ere galdu txapelketa osoan eta nagusitasun hori agerian geratu zen finalean ere.



Txapelketako talde irabazlea, HLB 108. | A.A.



Getokuak taldeko jokalaria bat pase bat egiten. | JULIO CALLEJA



Getokuak taldekoek koadrilako Igorri eskaini zioten garaipena. | ANDER MONEDERO



Pentols, txapelketako koparekin. | PENTOLS



Getokuak taldeko atzelaria baloia urruntzen. | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

2-0 irabazita, Ipintzako txapelketa Getokuakentzat

ANDER MONEDERO | BERGARA
Ikusmin handia sortu zuen egubakoitz arratsaldean jokatu zen Bergarako Ipintza futbol txapelketaren finalak. Giro aparta bizi izan zen Getokuak eta Betigorri taldeek jokaturako finalean.

Partidu orekatua izan zen, bi taldeek gol aukera asko izan

zituzten, baina horiek aprobetxatu zituen bakarra Getokuak izan zen. Lehenengo gola kontraeraso batean lortu zuen: aurrelariak egindako jaurtiketa atezainak urrundu eta defentsak baloia areatik kanpo bota aurretik, aurkariak baloia lapurtu zien eta horren erdiraketa aurrelariak

errematatu, baloia sare barrura botaz. Bigarrena, beste kontraeraso batean lortu zuten: honetan, aurrelariak ez zuen kale egin eta lehenengoan sartu zuen gola.

Bigarren zatian, Getokuak zuen abantaila mantentzeraz irten zen, defentsan fin aritu zen eta Betigorri gol aukerak egin arren,

ez zuen Getokuak atea zulatzen jakin.

Emakumezkoetan, Pentols

Eguazten arratsaldean jokatu zuten emakumezkoen finala Pentols eta Ou Pitxu Ou taldeek. Bertan, Pentols taldekoek txapelketa osoan izandako nagusitasu-

na erakutsi zuten eta Ou Pitxu Ou taldekoek ezin izan zieten aurre egin: Pentols irabazi zuen, 6-0 emaitzarekin.

Normaltasuna protagonista

Antolakuntzakoak pozik agertu dira jokalariek izandako jarre-rarekin, izan ere, beste urte batzuetako talde desberdinen arteko liskarrak ez dira errepikatuta eta, zorionez, txapelketan ez da lesio larriarik izan.

MENDI-MARTXA

Ehunmilak ultratraila gogorra eta oso lehiatua

Egubakoitzean 22:00 inguruan igaro ziren Gorlatik ultratraila korrikalariak. Antolatzaileek adierazi zuten, eguraldi kaxkara egin arren, bolondres asko hurbildu ziren bertara laguntza eskaintzera. Proba luzean 198 korrikalarik eta motzean berriz 308k parte hartu zuten. Aitor Leal irundarra izan da hirugarren edizio honetako garailea.



JULIO CALLEJA



J.C.

AUTO LASTERKETA

Ruben Nogueiras | Pilotua

"Kirol hau praktikatzea garestia da, ez daukagu-eta inoren laguntzarik"

- ▶ Euskal Herriko txapelketa Urrakiko igoeran amaituko da; txapelduna erabakiko da bertan
- ▶ Hurrengo urtean ere Euskal Herriko txapelketan parte-hartzea gustatuko litzaioke

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Honakoan Ruben Nogueiras (Oñati, 1973) pilotua da gure elkarrizketatua. Izan ere, aurreko asteburuan Arlabango igoeran hartu zuen parte eta hirugarren postua eskuratu zuen. Lasterketa honetan izandako esperientziaren eta urte honen balorazioaren gainean hitz egin dugu, besteak beste.

Nondik dator automobilismoarekiko zaletasuna?

Betidanik izan dut motor munduarekiko interesa. Egun batean, Untzillako igoera ikustera joan nintzen eta txundituta gelditu nintzen. Geroztik, geroz eta gehiago interesatu zait mundu hau eta automobilismoarekin zerikusia zuten ekitaldiak ikustera joaten hasi nintzen, besteak beste, rallyak eta auto-krosa.

Zenbat urte daramatzazu honetan?

2007an izan nuen lehen esperientzia: auto-kros modalitateko hainbat lasterketatan hartu nuen parte. 2009an, aldiz, gaur egun dudan CM-a erostea erabaki nuen igoeratan parte hartzeko.

Zer da automobilismoa zuretzat?

Berez kirol bat da, baina niretzat zaletasuna da. Oso garestia da kirol hau praktikatzea ez baitauekagu inoren laguntzarik (babesleak salbu) eta gastu guztiak gure poltsikotik ordaindu behar ditugu (inskripzioa, lizentzia, igoerarako gastuak...) eta ez da bidezkoa.

Arlabangoa izan da egindako azken igoera. Nola joan zen?

Espero nuena baino okerrago. Igoeraren ibilbidea ondo ezagutzen nuen, baina hainbat arazo izan nituen. Izan ere, gurpil berriak falta zitzaizkidan, aste osoa gaixorik pasa nuen eta ez nengoen ehuneko ehunean. Bigarren igoerako denbora ez nuen espero, ez zen ona izan. Baina, batzuetan, hobeto egin dizula pentsatzen duzunean gaizki irteten da; eta alderantzizkoa ere gertatzen da.

Ibilbidea berria izan da aurtengoa.

Aurtengo ibilbidea asko gustatu zait, nahiz eta errepede zati batzuk hobetu beharra dauden. Izan ere, gure autoek lurra ukitzen dute leku askotan. Dena den, Arlabangoa, egin ditudanetarik igoera politena izan da.

Zeinetan moldatzen zara hobeto: bide zaharrea edo geroz egindakoan?

Berriago honetan. Gatzagako igoera aurreko urtean egin nuen eta motza eta azkarra zela iruditu zitzaidan.



Ruben Nogueiras eta Juan Carlos Silvestre Silver Car-arekin. | EAF-FVA

03:26:449ko denbora. Gustura?

Nik espero nuena baino okerrago. Azkar nindoala uste nuen, baina Aitor Arakistain eta Joseba Iraolak izugarritzko denbora egin zuten. Horregatik, nik egindako denbora ez zen hain ona.

Errepide lehorra ala bustia?

Nahiago dut errepide lehorrean lasterketa egitea. Izan ere, lehorrean istripu bat izateko arriskua txikiagoa da. Hala ere, Aitor Zabaletari irabazi ahal izateko errepide bustia beharrezkoa dela uste dut. Lehorrean bere denboretara gerturatzea ia ezinezkoa da. Hala ere, lehorrean gehiago disfrutatzen dut.

Zure autoaren ezaugarriak zeintzuk dira?

Nire autoak azelerazio bikaina du eta oso zintzo jokatu du. Autoak ez du asko pisatzen eta

izugarritzko potentzia dauka. Hori dela eta, igoerarako ezin hobea da. Auto honek eskaintzen dituen sentazioak beste autoekin konparaezinak dira.

Denboraldi amaiera non eta noiz?

Euskal Herriko txapelketa Urrakiko igoeran amaituko da, urrian. Bertan erabakiko da aurtengo txapelduna. Aitor Arakistain dago lehen postuan, baina ni bigarrena naiz eta bere puntu berdinak ditut. Hala ere, Joseba Iraola eta Aitor Zabaletak, adibidez, badute txapeldun izateko aukera. Hori dela eta, Urrakiko igoera oso garrantzitsua izango da. Bestalde, Espainian ere hainbat igoera egingo ditut, Kantabrian eta Galizian, esaterako. Asteburu honetan, adibidez, Galiziako lagun batek antolatzen duen igoera batera noa.

Urtearen balorazioa?

Momentuz aurtengo denboraldia ondo doa. Hala ere, Euskal Herriko txapelketaren irabazlea airean dago. Irabaziz gero, denboraldi oso ona izango da, ez badut irabazten aldiz, ona. Gure helburuak, aldiz honakoak dira: igoeratan gozatzea, lagunekin ondo pasatzea eta Euskal Herriko kanpoko igoeratan jendearekin erlazionatzea. Dena den, krisi ekonomikoa dela eta, aurreko urtean egin

ziren hainbat igoera ezin izan dira burutu, diru faltagatik.

Hurrengo urterako zer?

Hurrengo urtean Euskal Herriko txapelketa egitea gustatuko litzaidake, berriro ere. Espainiako txapelketan gauzak aldatuz gero, besteak beste, presidentea, parte hartuko dut. Hala ere, lagunek antolatzen dituzten beste igoeretan (Galizia, Kantabria eta Errioxa) ere parte hartzea gustatuko litzaidake.

"Espero nuena baino okerrago egin dut aurtengo Arlabango igoera"

"Nahiago dut errepide lehorrean lasterketa egitea, istripurik ez izateko"



Ruben Nogueiras, Arlabango igoerako sari banaketan. | GOIENA

KULTURA



Gorputza erditik apurtuta zuen panpinak harridura sortu zuen ikusleen artean, batez ere, txikienean. | JULIO CALLEJA

Gurpil-aulkien eta ikusleen arteko interakzioa bultzatuz

'H,o2topoz' antzezlanarekin txundituta geratu ziren ikusleak Arrasaten

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Barreras lana oinarri hartuta sortu du Iñaki Mata antzuolarrak *H,o2topoz* antzezlan. Gurpil-aulkien mugimenduen eta ikusleen arteko interakzioa sortzea du helburu, eta Arrasateko bategitea

erabatekoa izan da. Gurpil-aulkien mugimenduek markatu zuten bidea, eta Seber Altuben zeuden herritarrek bidea jarraitu zuten. Lehenengo, gorputza erdituta zuen panpina jarraitzen, eta gero biraderadun organoa zuen pan-

pinarekin. Bigarren harekin disfrutatu zuten batez ere plazan zeuden neska-mutikoei: hutsik zeuden gurpil-aulkietan ibiltzeko aukera izan zuten, trena izango balitz bezala. Garraibide ere izan daiteke gurpil-aulkia.

Bi tarte horietan, panpinak, gurpil-aulkiak eta ikusleak izan ziren protagonistak. Hitz barik. Elkarrizketa barik. Mugimenduekin bakarrik.

Hitz barik, mugimenduekin

Mugimenduek protagonismo itzela hartu zuten emanaldiaren hirugarren zatian. Begoña Martin dantzariak sentiberatasun handiko koreografia egin zuen. Lurrean, bakarrik, hasi zen dantza egiten, eta gurpil-aulkiarekin jolasean bukatu zuen. Bien arteko topaketa hunkigarria izan zen: begiradarekin, ukimenarekin, dantzarekin...

Gurpil-aulkiarekin haserretu eta alaitu egin zen. Bi objektu

ezberdin direla erakutsi zuten une batzuetan, eta objektu bakarra izan daitezkeela beste batzuetan. Biek ala biek, euren mugimenduekin, hizkuntza ezberdinak erakutsi zituzten. Biek ala biek, sentitu eta sentiarazi egin zuten. Ikuskizuna bukatzeko, Begoña Martinek neska-mutikoei egin zuen jolas. Hutsik zeuden gurpil-aulkiekin bidaiatxo bat egin zuten elkarrekin Seber Altube plazatik.

Ikusleek txalo zaparradarekin agurtu zituzten Iñaki Mata egilea eta Begoña Martin dantzaria, eta haien ametsak eta istorioak.

Bidearen hasiera

Ikusleak harri eta zur geratu ziren. "Ezusteakoa", "ederra", "ezberdina", eta "polita" bezalako hitzak entzun genituen. Egubakoitzeko emanaldia ikusi ez zenuenok, adi egon zaitezte. *H,o2topoz* ikuskizunak bidea hasi besterik ez du egin.

IÑAKI MATA
EGILEA

"Ikusleen erantzun onak erakusten dit bide onetik noala"

Leioan estreinatuta zuen Iñaki Matak *H,o2topoz* ikuskizuna.



Arrasatekoa bigarren emanaldia izan zen.

Gustura?

Bai, oso pozik bukatu nuen. Ikusleen erantzuna espero baino hobea izan zen, eta horrek erakusten dit bide onetik noala.

Zergatik erabiltzen dituzu gurpil-aulkiak?

Objektu ederra dela uste dut. Nahi duzuna kontatzeko hizkuntza duen tramankulua da. Asmakizun paregabea da, eta erakutsi gura dut edozertarako balio dezakeela.

Duda barik, proposamen bisuala egin duzu.

Hori zen helburua; hori eta ikusleak sentiaraztea. Olerki irudietan oinarritutako ikuskizuna da. Urteetan jasotako esperientziak hartu ditut aintzat ikuskizuna prestatzeko.



Begoña Martin koreografia egiten. | MIREIA BIKUÑA

KRONIKA

Xamurtasunean oso eroso

FITXA

AZKOAGA ENEA HOTELA

MIKEL URDANGARIN

ERREKAN GORA

Generoa: Folk-rock.

Non: Eskoriatza.

Eguna: Uztailak 14, zapatua.

Iraupena: 1h 40 minutu.

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Eszenatoki ederrak eta gau giro paregabeak lagunduz gero, edozein zuzenekoekin gozatzea errazagoa dela ezin ukatu. Hala ere, beti da plazera euskal kantagintzaren maisuak entzutea udako edozein gauean. Zapatuan, 100 lagun inguruk gozatu zuten Mikel Urdangarin mezu esplizitu eta inplizituekin Eskoriatzan.

Oraingoan, gainera, bidelagun aparta bilatu du Mikel Urdangarin: maisuetan maisua, Rafa Rueda, lagun izan zuen, gitarra elektrikoaz. Txakur zaharrak dira eta badakite ikusleari zer gustatzen zaion... nola moldatu eta zein jarrera eduki oholza gainean. Errepertorioa ere ezin zabalagoa dute biek ala biek eta zer esanik ez elkarrekin badaude. Baina oraingoan, Urdangarini barru-barrutik ateratzen zaizkion hitzak entzuteko gaua zen; eta ziurrenik, horien testigu zuzena Rueda bera ere izan da.

Kantuak berez sortzen zaizkiola ematen du, ez diola trabarik jartzen barrutik darion musika-

ri. Erraz entzuten dira haren kantak, nahiz eta konposizio lan handia egon atzean. Eroso sentitzen da gitarra esku artean, zuzen zuzenean abestuz. Eta publikoak hori igarri egiten du. Bien arteko konplizitate usaia ere agerikoa da; horrek, zalantza gabe, edozein musikariri laguntzen dio xamurtasunean eroso egoten.

Hamaika lan

Mikel Urdangarin kantuak oso gertukoak egiten zaizkigu eta lehen estrofan kantatzera animatzen gara. Euskal kantagintzaren olatu berri gisa bataiatu dute askok, baina *Espilue* lanarekin

entzule kopurua handitu ez ezik, euskal kantagintzara egindako ekarpenak finkatu ditu zornotzarrik. Dagoeneko, hamaika lan ditu bere bizkarrean.

Zapatuan, abesti berrienak eta 18 urte zituela Eskozian idatzitako bakarren bat ere entzuteko aukera izan genuen; eta nola ez, baita oilo ipurdia jartzen duen *Martxa baten lehen nota* abesti mamitsua eta sakona, Mikel Laboari zor dioguna eta askori malkoa eragiten diona.

Aitor Etxeberría bikain ikusi genuen soinuaren, beste behin ere aparteko lana eginez eta zuzeneko borobiltzen lagunduz.



Rafa Ruedak lagundu zion gitarraz Mikel Urdangarini. | JULIO CALLEJA

Psikodelia eta post punk doinuekin bidaiatzean...

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Geroz eta entsutetsuagoa egiten ari den taldea dugu Jupiter Jon. Musikaren alorrean badute eskarmentua. Taldekide gehienek ibilbide luzea dute, eta Akauzate, Bukaera, Lisabö, Mau Mau, Mar de Cristales, Dollmen edota Gabon Caligula taldeetan, besteak beste, ikusiak ditugu. Inprobisazioari bere lekua eginez, kultura zaharrenen erraietatik datorren erri-

mika taupada dute oinarri. Ahots ilunez erreztatuz eta distortsioa erabiliz, musikarekin jolas egitera gonbidatu zituzten zapatu gauean Arrasateko gaztetxera gerturatu zirenak.

Ohiko melodia eta erritmoekin apurtzen dute, melodiaren dekonstrukzioak eginez.

Baxi-ri, taldeko abeslari eta gitarra jotzaileari, Iker Barandiaranek egindako elkarrizketa

batean, *Nor da Jupiter Jon?* galderari, "Lunatiko xamarra izan daitekeen edonor" erantzuna irakurri diogu.

Pleistozenoko astelehenak diskoak batzen dituen kantu gehienak instrumentalak diren arren, letrek badute pisua eta, nola ez, garrantzia. Kantu bakoitzak gai propioa du eta ideia nagusia izenburuetan laburtzen dutela dio laukote irundarrak. Nabarmen-tzekoa da Aida bateria-jotzailea ere, beste behin, bikain aritu zen, bere kolpe bereziarekin.

Familia giroan, ordubeteko zuzeneko txukuna eman zuten Jupiter Jon taldeko neska-mutilek. Kraut, post punk, abesti txinatarrak eta Balkanetako doinuak nahasten dituen proiektuari 2011-ko neguan ekin zioten, orduan atera zuten lehen diskoarekin. Errege anfibioaren goxotasun ezia, psikodelia ukituz jantzitakoa, edota Jon Felix Boeing kantuarren kolpe aldaketak dira zuzenekoaren zertzeladaren adierazle.

Bukaera borobila eman zioten Mikel Laboa omenduz *Txinaurriak* diskorako egindako *Kirru* abestiaren instrumentalarekin. Gogoan izan zuten ere Swell maps taldeko Nikki Sudden handia.



Jupiter Jon laukote irundarra Arrasateko gaztetxeko zuzenekoan. | JULIO CALLEJA



Txus Blues eta Jose Bluefingers bikote kataluniarra. | JULIO CALLEJA

Umoretsu eta gogotsu etorri zen Bartzelonako bikotea kalitatezko zuzeneko dibertigarria eskaintzera

MAIDER ARREGI | BERGARA

Espoloiko aulki denak bete egin ziren, eta jendea zutik ere geratu zen. Euriaren mehatxuarean, aulkiak eszenatoki barruan jarri zituzten musikariek modu originalean. Bi orduko zuzeneko eskaini zuten Txus Blues eta Jose Bluefingers Bartzelonako bikoteak. Blues doinuak eta umorea tartekatzen dituzte. Melodiak txisteekin azaleratu eta publikoak guztiz bereganatzen badakite. Euskaraz ere hitz solteak esanez, txisteren bat entzuteko aukera izan zen. Bluesa ikus-entzule orori gerturatzea dute xede. Letra barregarriak

eta kritikoak abesti oso ezagunen bertsioekin taularatzen dituzte. Eta noski, formula horrekin, barre algarak eta arrakasta bermatuta daude. Jimi Hendrix, bluesaren moldaeraz eta umorez interpretatutako tangoak edo korrido mexikarrak izan ziren entzungai; oso errepertorio zabala eskaini zuen bikoteak.

Diskoak saldua

Publikoaren aldetik izandako erantzuna ondoren saldutako disko kopuruan igarri zen. Asteburuan, Hondarribiko jaialdian ere, bi zuzeneko egin dituzte.



JULIO CALLEJA

Aho zabalik Hipo eta Tomaxekin

Udaleko Kultura sailak antolatuta, bariku arratsaldean, gaztetxoan gozamenerako, Hipo eta Tomax pailazoan emanaldia izan zen. Munibe plaza beteta, lurrean eseritako haur eta gurasoek adi-adi begiratzen zieten pailazoaren txantxa eta trukuei. Giro ezin hobean, barre algarak ere ez ziren falta izan gaztetxoaren artean. Pailazoekiko *feeling*-a nabaria zen eta, nagusi zein gaztetxo, denak gustura egon ziren.

Wi-fi publikoekin eta fakturarekin kontuz, opor sasoian

Konexio publikoetako zuloen bitartez erraza izan daiteke erabiltzaileen mugikorretara sartzea eta barruan gordetzen duten informazioa eskuratzea

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Smartphoneak eta tabletak bide-lagun dira oporretan eta ia ezin-besteko bilakatu dira planak egin eta informazioa bilatzeko orduan. Aldi berean, baina, gordetzen duten informazio pertsonal kopuru handiarengatik, horiek galdu edo lapurtuak izatea arriskutsua izan daiteke, bertan gordetzen baitira posta elektronikoa, helbide agenda, kontaktu agenda bera edota argazkiak. Gailua bera lapurtzea baino, geroago eta ohikoagoa da gailuko datuak osten saiatzea, eta wi-fi konexioak dira horretarako arriskutsuenak; etxetik kanpo, noski. Ordenagailu publikoetan ere informazio pertsonala zaintzeko oso tentuz ibili beharra dago.

Balio bikoitza

Diru-zorroa barik, azkenaldian lapur askoren anbizio bihurtu dira sakelakoak. Askoren balioarengatik bai, baina sakelakoek barruan izan dezaketen informazioarengatik ere dira balio-tsua, banketxeko datuak eta bestelako pasahitzak daudelako.

Aholku eta neurri zerrenda:

- ▶ Banketxeko operazioak eta erosketak egiteko, sekula ere ez erabili ordenagailu publikorik, eta wi-fi konexio publikoak ere ekidin, ahal den neurrian.
- ▶ Erregistratutako saio guztietatik, orria itxi baino lehenago, irten. Bestela, edozein erabiltzaile sar daiteke norberaren kontura eta sarbidea izan informazio pribatura.
- ▶ Promozio eta deskontu guneetarako beren beregi sortutako e-posta helbide bat erabili. Helbide bera erabil daiteke opor sasoian argazki eta informazioa bidaltzeko, atzemanek gero, informazio pertsonalik arriskuan egon ez dadin.
- ▶ Laneko ordenagailu eramangarriekin ibiliz gero, zifratu fitxategi garrantzitsuak, segurtasun kopia egin eta leku seguruan gorde.
- ▶ Aplikazioak eta softwarea eguneratuta izan, segurtasunean pitzadurak ahalik eta gehien ekidin ahal izateko.
- ▶ Bluetooth eta GPS konexioak beharrezkoak direnean soilik erabili, guztietan ahulena dira-eta.
- ▶ Hotel, aireportu eta ziberkafeen wi-fi publikoak ahal den neurrian ekidin, sarri ez dute-eta nahi besteko segurtasun mailarik izaten.
- ▶ Telefonoa zaindu, ezezagun baten eskuetan buka ez dezan.
- ▶ Antibirusa erabili, ez hainbeste aplikazio eta birus kaltegarriak saihesteko, informazio pertsonala babesteko baizik.
- ▶ Telefonoaren faktura ondo pistaratu, iruzur baten pizaratik argiena izan daiteke gorakada bat.

Tuenti berriarekin adin eta lurralde muga gainditzea bilatzen dute plataforma arteko txatarekin

J.B. | ARRASATE

Birmoldaketa osoa egin du Tuenti sare sozialak, logotipotik hasi eta plataformaraino. Itxura aldatu eta webgunea mundu osora zabaltzeko asmoa ere iragarri dute egungo 14 milioiko erabiltzaile kopurua handitzeko helburuarekin; 14 urtetik gorako erabiltzaileak dituzte orain jomagan. Movistarrek erosi zuen 2010ean sare soziala eta orduetik hona mugikorretarako plataformara biderratu dituzte ahalegin guztiak. Aurrerantzean bertsio mugikorretarako izango du protagonismoa, webgunearen gainetik. Indar-

gune nagusia izango den mezu-larritza sistema multiplataforma aurkeztuko dute, iPhone, Android, Windows Phone, BlackBerry eta mahaigainekoetarako balioko duena. Txat moduko hori izango da Tuenti berriaren erdigunea. Pribatutasunaren zaintzarekin benetan saiatuak izango direla agindu dute, eta, horrela, hiru gune erabat independente egongo dira: *Tú* atala, erabiltzailearen profilarrekin; *Momentos*, albisteen *feed*-arekin; eta *Chat*, aipatutako ezaugarriekin. Informazio guztia modu seguruan joango ei da enkriptatuta.



Tuentiren logotipo berria (goian) eta lehengoa (behean). | TUENTI

Produktibitatea areagotzeko sare soziala aurkeztuko dute aurki Twitterren sortzaileek

Lift deitzen da sare berria, eta jarduerekin lotutako helburuak kudeatu eta bete beharko dira

J.B. | ARRASATE

Twitterren sortzaile eta fundatzaile izan ziren Biz Stone eta Evan Williams Lift izeneko sare berri baten dabilta lanean. Xehetasun askorik ere ez dute oraindik eman, baina sare sozialetan helburuak betetzearekin lotuta lego-ke, eman duten informazio urriaren arabera; produktibitatearekin, alegia. Iaz abuztuan egin zuten aurrerapen baten arabera, Twit-

terren erraztasuna eman gura diote eginbeharren kudeaketari, betiere helburu zehatz batzuk betetzeko. Jarduera bera eta hori lortzeko egindako denbora jasotzen ditu sareak, eta jardueren arabera jendea batu. Lehen urratsa, orain, iPhonearako aplikazioa eskuragarri jartzea izango da eta blog ofizialean (<http://blog.lift.do>) dagoneko eman dituzte argibide batzuk.



Aplikazio berriaren pantaila-irudi bat. | ALTI040.COM

Sinde Legearen antzeko bat, Errusian

J.B. | ARRASATE

Espainiako Gobernuak bere garaian egin zuen moduan, Sinde Legearen oso antzerako erregulazio sistema onartu berri du Errusiako Parlamentuak. Han ere "zerrenda beltzen" bitartez susmagarriak izan daitezkeen webguneak jaso eta ohar bitartez jarduera eten edo salaketa ipiniko dietela jakinaraziko zaie webguneen esku-hartzerik egoteke. Neurriaren aldekoek esan dute haur pornografiaren aurka egiteko oso neurri ona dela, baina legearen zehaztasunik ezak beste mota askotako webguneak ixtea ekar leza-ke, aurkariak diotenez. Horren aurka, Errusiako Wikipediak 24 orduz eten zuen jarduera eta herrialdeko zenbait bilatzaile eta gune nagusi, tartean Yandex handia, arduratuta agertu dira Gobernuaren asmoak ikusita. Oraingoan, eta bestelako nobedaderik ez bada, legeak aurrera egingo du eta aurki izango da indarrean.

Lan bilatzaileen erdiak sare sozialetan dihardu

J.B. | ARRASATE

Lana bilatzeko orduan lehen-tasuneko toki bilakatu da Internet. Enplegu atariak izan ziren lehenik, eta orain, sare sozialetan dago bilaketa ahaleginaren puntu interesgune nagusietako bat. Infoempleo atariak Espainian eginiko azken ikerketaren arabera, langileak aukeratzear arduratzen direnen %80k hautagaien jarduera begiratzen dute sare sozialetan. Facebook, foroak, blogak eta Twitter dira, hurrenez hurren, kontsultatuenak. Aldi berean, lan bilatzaileen %63n, gune horietan beren beregi argitaratzen dituzte edukiak, hautatzaileek kontsultatuko dituztelako esperoan. Sare sozialetan egoki jardutea, baina, lana aurkitzeko baliagarria izan daiteke, enpresa eta enplegatzaileen %71k uste baitute aktibo direnek lana aurkitzeko aukera gehiago dauzkatela. Bada, LinkedIn sare profesionala da kontsultatuen eta Facebook bigarren da zerrendan.

Biltegitzeko espazioa bikoiztu egin du Dropboxek

Baliteke Google Driven agerpenak bultzatu izana, baina, hala ere, bikoiztu eta 500 MBko biltegi-plana aurkeztu berri du Dropboxek. Aurretik ordainpeko kontu baten jabe direnek automatikoki ikusiko dute euren biltegitratze ahalmena handituta. Doako planetan ere berrikuntzak daude, eta, erabiltzaile baten lagunen batek kontua zabalduz gero, biei 100 GB handituko diete biltegitratzea. Eta ordainpeko planetan ere areagotu dituzte ahalmenak.

Yahoo!-ko milioi erdi gako eman dituzte argitara

453.492 erabiltzailearen kontuen pasahitzak argitaratu dituzte Yahoo!-ri eraso egin eta gero. SQL txertaketa baten bitartez lortu dituzte erasotzaileek gakoak eta testu hutsean argitaratu zuten egunean pasahitzen zerrenda. Erasotzaileek ohar publikoa eta guzti atera zuten, eta esan eraso bako oharra izan dela. Oharra, Yahoo!-ko segurtasun arduradunei, oso neurri ahulak omen dituztelako posta zerbitzuetan. Erasoa horretan geratuko dela esan dute.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON



Pulseras Rojas edo Polseres Vermelles?

Pulseras rojas izena eman diote Antena 3-en emititzen hasi diren ekoizpen katalanari, izan ere, katalanez eta Katalunian ekoiztutako fikzioa da berau. Gaztelanira bikoiztu dute telesaila eta estatu mailan sekulako arrakasta lortu du bere lehenengo bi episodien emisioan. Jakin dugu ere Spielbergek telesailaren eskubideak erosi dituela bertsiostatubatuara ekoizteko.

"Dramoiaren" aurka sortutako telesail gisa definitu dute askok, 4ª Planta pelikularen gidolari bera duen hospitaleko istorioa izanda ere (berria, hau, telebistan), era xamur eta dibertigarrian kontatzen ditu minbiziaz gaixorik dauden haurren istorioak.

Zuzendariaren elkarrizketa ere irakurri dugu aste honetan, pozik, gaztelanirabikoizte lan horretan, katalanez mantendu dituztelako haurren izenak eta saioaren musika. Gaitzerdi, akaso?

Azpittuluak erabiltzeko aukera aspaldi dugu telebistan eta oraindik gaztelania ezden beste hizkuntzarik ezin estuzunda gabil-tza telebista espainolean. Bada marka hori!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 16



'Harmailatik'

Asteburuan izandako kirol albisteen errepassoa eskainiko dizuegu Xabier Urtzelaireren eskutik | 20:30

12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Onein
13:35 Zorion Agurrak
14:08 AsteON
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Zorion Agurrak
15:11 Bertso saioa
15:34 Ikusmira
15:52 Bizitegia
16:22 Ikusmira
16:38 Zorion Agurrak
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:06 Onein
17:26 Goierri Creation Center
17:51 AsteON
18:24 Zorion Agurrak
18:57 Berriak
19:17 Eguraldia
19:20 Magazinea
20:05 Berriak
20:25 Eguraldia
20:30 Harmailatik
21:15 Magazinea
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak

MARTITZENA 17



'Musikaz Gain'

Aste honetako saioan Javier Corcobado musikaria gertutik ezagutzeko aukera izango dugu. | 22:33

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:18 Goierri Creation Center
16:43 Zorion Agurrak
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Ikusmira
17:29 Bizitegia
17:59 Harmailatik
18:44 Beranduegi.tv
19:04 Hamaika.bit
19:34 Ikusmira
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Zorion Agurrak
21:05 Berriak
21:25 Eguraldia
21:28 Harira
21:58 AsteON
22:33 Musikaz Gain: J. Corcobado
22:44 Magazinea
23:29 Walker
23:49 Berriak

EGUAZTENA 18



'Tertulia'

Txomin Madinaren eskutik Oñati eta bere aisialdiaren inguruan arituko dira gonbidatuak. | 22:25

12:15 Eguraldia
12:18 Magazinea
13:03 Zorion Agurrak
13:08 Harira
13:41 Beranduegi.tv
14:01 Harmailatik
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:09 Ikusmira
15:27 Onein
15:52 Goierri Creation Center
16:17 Berbetan
16:55 Berriak
17:15 Eguraldia
17:18 Harmailatik
18:03 Zorion Agurrak
18:08 Musikaz Gain: Lauroba
18:19 Beranduegi.tv
18:39 Harira
19:12 Azpeitiako Rallysprinta
19:47 Zorion Agurrak
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Lehiaketa
21:15 Berriak
21:35 Eguraldia
21:40 Magazinea
22:25 Tertulia
23:25 Berriak
23:30 Eguraldia

EGUENA 19



'Planik bai?'

Arantzazu Ezkibeleg aurkeztuta, asteburu-ara begira jarriko gara. Askotariko planak izango dira. | 18:33

12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Tertulia
13:40 Tertulia
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:38 Goierri Creation Center
16:03 Musikaz Gain: Lauroba
16:14 Ikusmira
16:30 Walker
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:13 Tertulia
18:13 Onein
18:33 Planik bai?
18:53 Altxor Txokoa
19:13 Zorion Agurrak
19:46 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:11 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Planik bai?
21:20 Berriak
21:40 Eguraldia
21:43 Hamaika.bit
22:13 Walker
22:33 Planik bai?
22:53 Magazinea
23:38 Berriak
23:58 Eguraldia
00:23 Planik bai?
00:43 Berriak

EGUBAKOITZA 20



'AsteON' saioa

Astean emandako albiste eta gertakizunen gainbegiratura Arritxu Barrusoren eskutik. | 22:00

12:30 Planik bai?
12:50 Magazinea
13:35 Zorion Agurrak
13:40 Walker
14:00 Onein
14:20 Beranduegi.tv
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:58 Planik bai?
15:28 Bizitegia
15:58 Hamaika.bit
16:18 Zorion Agurrak
16:51 Berriak
17:11 Eguraldia
17:14 Planik bai?
17:34 28.Klip
18:06 Harira
18:39 Tertulia
19:39 Beranduegi.tv
19:59 Berriak
20:19 Eguraldia
20:22 Planik bai?
20:42 Harira
21:15 Berriak
21:35 Eguraldia
21:38 Musikaz Gain: Lauroba
21:49 Musikaz Gain: Lauroba
22:00 AsteON
22:35 Jaiak: Antzuolako jaiak
23:05 Berriak
23:25 Eguraldia
23:28 Planik bai?
23:48 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Murugaineko indusketak 'Uda Giroan' saioan

Astero bezala, gaurkotasunezko gai buruz arituko gara Arrasate Irratian. Esaterako, Murugainen egingo dituzten indusketen gainean egingo dugu berba gaurko *Uda Giroan* saioan. Horretarako, Etor Telleria gonbidatuko dugu irratiara eta gai honi buruz hitz egingo dugu.

Blas Kruz entzierro korrikalaria etorriko zaigu bisitan

Uda aurrera eta San Ferminak ere bukatuta. Hori dela eta, entzierroetan korrika ibili den Blas Kruz arrasatearra etorriko zaigu bisitan. Zezen entzierroak gertutik bizi izan ditu, eta horixe kontatuko digu. Alegia, entzierroetan bizi diren giroa eta tentsioa azaltzen ahaleginduko da.

Jon Sarasuaren 'Ertzeko bideak' liburua zozketan

Aste honetan liburu bat ipiniko dugu entzuleen eskura: Jon Sarasuaren *Ertzeko bideak*. Egun pasa egiteko proposamena bidali eta zozketan sartuko zarete. Horretarako, beti bezala, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat ondorengo helbideetara: irradi@goiena.com edo [#arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena). Zorte on!

TELE-ALBISTEAK

Antzuolako jaien jarraipen luze eta zabala gertu gertutik

Magazinea eta Jaiak saio berezien bitartez, asteburuan batutakoak erakutsiko dizkizuegu



Umeen ikurrin dantza, jaiak hasteko. | GOIENA

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Urtero bezala, Antzuolako jaien jarraipen luze eta zabala egingo dugu. Jaietan murgilduko gara, eta herriko giroa gertu gertutik eskainiko dizuegu.

Izan ere, eguenean hasita izandako ekitaldien berri eman go dizuegu. Astelehenean, *Magazinea* saioan, asteburuaren errepassoa egingo dute Miren Agirre eta Txomin Madinaren. Irudi erakargarrienak ikusi ahal izango ditugu eta kaleko protagonisten iritzi eta adierazpenak entzuteko aukera izango dugu.

Horrez gain, egubakoitzean, festen errepasso sakonagoa eskainiko dizuegu *Jaiak* saioaren bitartez. *Magazinean* erakutsitakoek gain, ordura arte ikusi gabekoak ere batuko ditu egubakoitze gaueko saio bereziak.

'Magazinea' astelehenean, 19:20ean; 'Jaiak' barikuan, 22:35ean

Agustin Markaide Eroski taldeko presidentea 'Harira' saioan

Martitzenean, Eroski taldeko presidentea elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Aste honetan, Agustin Markaide, Eroski taldeko presidentea, gonbidatuko dugu *Harira* saioa. Berarekin, Eroski kooperatibaren gainean jardungo du Eneko Azkaratek, lasai eta sakon. Elkarrizketan zehar, krisiak Eroski taldeari zelan eragin dion eta etorkizuna nola ikusten duen azalduko du Markaidek, besteak beste. Horrez gain, BEZaren igoerak ze ondorio ekar ditzakeen izango dute aztergai, beste gai batzuen artean. Hori guztia martitzenean izango da, 21:30ean, Eneko Azkarate aurkezlearen eskutik.



Agustin Markaide. | EROSKI

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ane Arrizabalaga
Txintxurreta
Uztailaren 21ean, urtebete. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian! Muxu eta besarkada handi-handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Marisabel Otaño
Hurtado
Uztailaren 21ean, 41 urte. Zorionak, tia! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Bi muxu handi izar eta Unaxen partetik.



BERGARA
Sara Unamuno Andueza
Uztailaren 20an, urtebete. Zorionak, Sara, zure lehen urtebetetzean eta mila patxo etxeko danon, eta bereziki, Mikelen partetik!



OÑATI
Joxe Guridi Egaña
Uztailaren 20an, 83 urte. Zorionak eta urte askotarako, aittaitta! Domekan zebratutako eguna bazkai eder batekin! Patxo asko familia danaren partetik!



ESKORRIATZA
Oinatz Andetxaga
Korujó
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak, *guapisimo!* Eguna polita pasatu etxeko partetik. Aupa Real eta GBC!



ESKORRIATZA
Amair Isasmendi
Martinez
Uztailaren 19an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo. Etxeko guztiak, aitite eta amama.



BERGARA
Julen Izar Galaraga
Uztailaren 19an, 8 urte. Zorionak, Julen! Ederto pasa deizula zure eguna. Patxo mordo bat Txurrekengo danon eta aitxita eta amamaren partetik.



ARRASATE
Laura Garcia Aguado
Uztailaren 19an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat anaia Raulen partetik!



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 2 urte. Zorionak, *guapeton!* Muxu handi bat zure gurasoen eta bestelako senideen partetik! Ondo pasa ezazu zure bigarren urtebetetzean.



OÑATI
Miren Aberasturi
Galdos
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko partetik. Mua!



OÑATI
Jone Alberdi
Uztailaren 18an, 12 urte. Zorionak, Jone, zure lagun danengatik eta oso-oso ondo pasatu eguna eta dibertitu topera. Beno, esangoztazu zela pasatu dozun eta patxo asko. Zure lagunak.



ESKORRIATZA
Udane Ruiz de Apodaka
Orueta
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako etxeko danon, eta bereziki, aitaxo eta amatxoren partetik. Ondo-ondo ospatukou eguna. Muxutxoek!



ARETXABALETA
Nahia Diez eta Garazi Diez
Nahiak uztailaren 18an, 5 urte eta Garazik 30ean, 9 urte. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik eta ondo pasatu zuen urtebetze eguna. Mila muxu potolo biontzat.



ARETXABALETA
Laia Arriola Serrato
Uztailaren 17an, 10 urte. Zorionak, Kuxku, oinguen jada 10 die, eh! Ondo-ondo pasatu eta patxo erraldoi bat etxekuen, eta batez ere, Anjeren partetik.



ARETXABALETA
Ainhitz Larrinaga
Aranburu
Uztailaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Ainhitz! Ondo-ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetze egunean. Muxuak etxeko danon partetik!



OÑATI
Luisa Hernandez
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, amama Luisi! Ondo-ondo pasa dezazula zure urtebetetze eguna, familia guztiaren partetik! Argazkian bezalako muxutxu potolo-potolo asko, bereziki Mario eta Enzoren partetik.



BERGARA
Lorea Arenaza
Uztailaren 14an, 7 urte. Zorionak, politxo! Etxekoak.



OÑATI
Ekain Hernandez
Delgado
Uztailaren 13an, 4 urte. Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat etxeko partetik.



ARETXABALETA
Nora Toledo Gallego
Uztailaren 13an, 2 urte. Zorionak, Nora! Oso-oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Unax Zelaia Lazkano
Uztailaren 13an, 8 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu potolo bat amama, aittaitta, tio eta tiaren partetik.



ANTZUOLA
Xabi Alonso Berezibar
Uztailaren 12an, 6 urte! Aupa Xabi! Zorionak danon partetik, Antzuolatik eta Atxabaltatik.



OÑATI
Aiuri Umerez
Madinabetia
Uztailaren 12an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta txokolatetzko patxo pila bat familia danaren partetik, bereziki Nahia, Izaro, Ekain eta Helenek.



ARRASATE
Julen Urrutia Atxa
Uztailaren 12an, 14 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Gari eta Anaren etxeko guztien partetik.



BERGARA
Maita Lazkano
Uztailaren 11n, 38 urte. Zorionak, amatxo. Asko disfrutatu zure urtebetetzean eta hurrengo urtian gehixau eta hobeto. Zorionak danon partetik baina batez ere Oier, Elene, Aritz, Izar eta Ekaitzek. Muxu mordo bat danon partetik.



BERGARA
Iraiti Eguren Guereñu
Uztailaren 11n, 8 urte. Zorionak, printzesa!



BERGARA
Miren eta Nora
Gabilondo Aristi
Zorionak! Mirenek uztailaren 10ean, 5 urte eta Norak uztailaren 14an, 7 urte. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunetan. Patxo mordo bat.



ELGETA
Markel Larrañaga
Mandaluniz
Uztailaren 10ean, 2 urte. Zorionak, Markel! Beste urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu deizula eguna. Etxekuen partetik.



BERGARA
Maia Salaberria
Uztailaren 9an, 3 urte. Zorionak, Maia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu handi-handi bat etxeko partetik, bereziki Aimarrek. Mua!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitarkeoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra.

Baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
 Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: irakurriena Debagoiengan.

Babeslea:

Euskalduna
 Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
 Etengabeko zerbitzua
 Lore koroak
 Eskelak
 Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
 e-posta: euskalduna@harrespil.net

MEZA

Amaia Arrieta Agirrebeña
 —Goian bego—

Bergaran hil zen 2012ko uztailaren 14an, 79 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, astelehena, uztailak 16a, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

JAIOTAKOAK



Eki Arriaran Amuriza

Otxandio. 3,800 kilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Leire eta Jabi.. Argazkian, Eki jaioberria.



Oier Azkona Jimenez

Arrasate. 3,320 kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Reme eta Aritz. Argazkian, Oier guraso eta arrebarekin.



Irati Coma Tena

Antzuola. 3,430 kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Rakel eta Raul. Argazkian, Irati aita eta amarekin.



Eder Ezenarro Zafra

Antzuola. 3,740Kilo. Uztailaren 10a. Gurasoak: M. Jose eta Ander. Argazkian, Eder amarekin.



Oihane Gonzalez Alegre

Osintxu. 3,310Kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Amaia eta Toño. Argazkian, Oihane amarekin.



Beñat Alberdi Lasagabaster

Bergara. 3,130 kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Amagoia eta Mikel. Argazkian, Beñat jaioberria besoetan lo.



Jon de la Fuente Guerrero

Arrasate. 3,140 kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Eva eta Ignacio. Argazkian, Jon amarekin eta izeba Nuriarekin.



Nahia Ruiz Barquero

Eskoriatza. 3,580 kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Ascen eta Antonio. Argazkian, Nahia gurasoekin.



Izei Oleaga Garcia

Oñati. 2,820 kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Ianire eta Mario. Argazkian, Izei amarekin.




Laia Iñarra Perez

Bergara. 2,890Kilo. Uztailaren 11. Gurasoak: Veronica eta Unai. Argazkian, Laia gurasoekin.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Ongarri		* Aretxabaletakoko elizatea	Joan den urtean
	Lore mota		Oinaze	Zeharka
	Miresmenaz			
	Hizpi mehe eta luzea			
Itsas ugaztuna	Vietnango hiriburua			Pluralean, hizki baten izena
Mahai estalki	Mokor, sokil			
			Euskal Herri- an Euskaraz	
			Oporraldi	
Teilatuko hodi				
Leku				
			Pasatze	
			Neona	
Musika tresna				Errepikatuz, gorotza
Galdu aditzaren oina				Röntgen
			Erran ezak!	


BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	V	R	R	E	L	V	G
V	K	O	N	I	P	I	
E	S	V	P	K	I	O	T
N	E	T	O	R	O	Z	
E	H	E	U	V	A	M	Z
I	O	N	A	H	M		
Z	V	A	R	I	M		
V	S	O	M	I	M		
I	G	S					



AI, ENE!

Itsasoan arrainen pare ibiltzeko

Hondartzara joan eta begirada guztiak erakartzeko, ez dago sekulako gorputza eduki beharrik: bainujan-tzi horrekin, nahikoa da.
www.nopuedocreer.com




AHOBERO

"Ez nuke seme gayrik izango; hori aita falta denean gertatzen da, edo bortxatu ostean"

CINDY MEJIA | MISS PERU UNIBERTSO

Peruko emakume ederrenak hautsak harrotu ditu miss izendatu berritan horrelakoak esanda. Piztutako polemika ikusita, zehaztu du bere lagunik onena gaya dela. Argi dago batzuei edertasuna desagertzen zaiela ahoa zabaldu bezain laster.
www.peru21.pe

EGURALDIA



Max. 25°

Min. 10°

Gaur zeru urdinean eguzkia jaun eta jabe izango da. Tenperaturak gora egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-07-16

HAMARREKOA

Axi Muniain Euskal surfari errekonozituenetakoa, 'Finlandia' saioko 'Axin ostiyak' tarteko zorakeriekin aho zabalik uzten ditu ikusleak sarri. Bere izen bereko sur eskola ere badu. | TXOMIN MADINA

"Beldurra landu egin behar da arriskuari aurre egiteko"

1. Zarautzara eta surfalaria. Esnea eta zuria esatea bezala al da hori?
Tankerako zer edo zer! Nahiko herri surferoa bilakatu gara: kokapen geografikoagatik badi-rudi itsasoak bitan banatzen duela herria. Kalera, enkargutara... Beti itsasoari begira goaz.

2. Lehen txapelketan 13 urterekin hartu zenuen parte.
Egun, 8 urtetik behera ere buru-belarri dabilta. Aurretik paipoan nabilen, baita patinetan Karlos lagunarekin ere. Hark animatuta surfa probatu, eta surfagatik utzi nituen paipoa eta patinak.

3. Ordutik, zenbat denbora egon zara gehienez itsasoan sartu gabe?
Lesioengatik izan da, betiere: hezurak hautsi izan ditudanean, hilabete eta erdi, asko jota. Medikua gomendatu baino lehen ere bai!

4. Itsasoak zer ematen dizu, bada?
Lehorrak ematen ez didana: bakea eta harmonia itsasaldi handiek ematen didate. Alde batetik, uretan jende asko ibiliko ez dela ziurtatuta dagoelako, eta bestetik, nire pasioa delako: irrika biziagotzen naiz itsasaldi preziatu eta egoskorren zain.

5. Euskal surfari errekonozituenetakoa zara. Zelan dago maila hemen?
Oso ondo; hainbat belaunaldi nor bere esparruan buru-belarri arituta, nazioartean hainbat emaitza lortu dira. Barneratuta dago Euskal Herrian diziplina ezberdinetan eskarmentu handiko jendea dagoela.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Bi gurari eskatuko nituzke"

"Zentzuarekin jokatuta, munduan ezarritako sistema guztiz aldatuko nuke; ez dakit zerekin ordezkatuko nukeen, baina mundua hankaz gora dugu. Makilak esaten badit hori ezin dela, gosea amaitzen saiatuko nintzateke. Era egoistan, 30 metrotik gorako olatua altxatuko nuke nire lagun taldearekin banatzeko".

6. Imajinatzen duzu zeure burua trajea jantzita bulegoan lanean?
Ezta zoratuta ere! Nahiko ipurterrea naiz: tokatzen zait paper eta ordenagailuekin ibiltzea, baina kontsumitzen nau, ez naiz errealizatuta sentitzen. Lehenago amaituko dut obran edo tailerrean; baina batek daki...

7. Bulegari ez, baina maisu bai, daukazu surf eskolan. Nolatan?
Ikasitakoa gainerako belaunaldiei helarazi nahi nien, surfaren xarma erakutsi. Lehiaztea norbera hobetzeko bide bat da, ez bakarrik. Helburua da norbera gehien betetzen duena topatzea, ez profesionalizazioa.

8. Nola bururatsen zaizkizu Axin ostiyak tarteko horko zorakeriak?
Gaztetako zorakerien bideoak webgune baten eskegi izan ditugu. Egin-dako eta egin gabeko sekulako burutapenak izan ditugu, eta, tartea eskainitakoan, ez nuen dudarik izan. Gauza alai egiten saiatu, eta surfarekin iristen ez ginen publiko batengana heldu garela uste dut.

9. Zer da zuretzat arriskua?
Murriztu daitekeen arren, guztiz ebatzi ezin den elementua. Beldurra lotuta dago, baina beldurrari ez zaio jaten eman behar: landu egin behar da arriskuari aurre egiteko. Arriskua, itsasoan, erronka da.

10. Gomendatu uda honetarako hondartza bat, edozein.
Orain enpresaria naizenez, Zarautz edo Donostia; eskolan, eskaintza ezberdinak ditugu udarako. Parranta giro ezin hobea ere badago!

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Kiroldegi berria

Bete-bete uda-sasoian gaude. Krisiak krisi, opor usainik bada. Jendearen planak, hori bai, aldatuz doaz. Opor egun gutxiago kanpoan, familiarekoei bisitak, herria oporleku bihurtu... Kanpinari hautsa kendu, eta eguna pasatzeko tuperwareak bete. Oporrei dagokienez, ere, neurri batean lehengora ez ote garen bueltatzen ari! Pena, herrietako errekak bainua hartzeko moduan ez daudela.

Aretxabaletan, izango da laster hankak uretan sartzeko modurik. Irailean zabalduko ditu ateak Ibarra kiroldegiak. Urtetan hainbeste desiatutako kiroldegiak, baina, ez du hasiera erraza izango. Krisiaren gordinena bizi dugun garairako, akaso, garestiegia? Publizitate egin behar izan da jendea abonatzera animatzeko. Duela urte batzuk ez nuke sinistuko "herrirako zer nahi duzu" galderarekin kalera ateratzen ginenean, kiroldegiarena asperteraino aipatzen bait en. Baina, orain, egoera aldatu egin da. Udalaren poltsikoak ez dira hain erraz betetzen, eta zifra handiei beldur diegu. Ez edukitzeko moduan!

Irakurri dut inguruko eskalataileak kiroldegiko rokodromo noiz zabalduko zain daudela, igerilariak ere prest. Hasiara eta ikasturte ona opa dizkiot kiroldegiari. Garai zailen jaiotzea toka zaio.

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

